

**Debako IUPI**

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala

2026-2029

# Araudia, irizpideak eta gomendioak

**Debako IUPI**
Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

# Araudia, irizpideak eta gomendioa

Data
**2025eko Iraila**

Sustatzailea
**Debako Udala**

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** %85eko dirulaguntza jaso du

Aholkularitza teknikoa eta idazketa
**Projekta Urbes**




Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.
II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria.
III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
**IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.**
V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.












# Aurkibidea

**Arau-esparrua 3**
Autonomia erkidegoko araudia 3
Estatuko araudia 4
**Araudia, irizpideak eta gomendioak 6**
Udalerri irisgarria 6
Hiri-ingurunea 6
Oinezkoen ibilbideak 6
Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak 12
Oinezkoen eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak 19
Zoladurak 24
Seinaleztapen-zoladura 29
Ibilbide maldatsuak 35
Arrapalak 41
Eskailerak 45
Eskubandak eta barandak 52
Igogailuak eta eskailera/arrapala mekanikoak 55
Hirigintza taktikoa 58
Seinaleztapen- eta informazio-elementuak 62
Garbiketa eta mantentze-lanak 66
Behin-behineko babes- eta seinaleztapen-elementuak 69
Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak 71
Jolas-elementuak 79
Hiri-altzariak, oro har 82
Eserlekuak eta mahaiak 84
Iturriak 89
Mutiloiak eta antzekoak 92
Zakarrontziak, postontziak eta antzekoak 99
Hiri-hondakinen edukiontziak 101
Ostalaritza establezimenduetako terrazak 105
Komun publikoak 108
Garraioa 114
Aparkaleku egokituak 114
Markesinak eta geralekuak 119
Eraikinak 123
Erabilera publikoko eraikinetako sarbidea 123
Erabilera publikoko eraikinetako barne-irisgarritasuna 126
Erabilera publikoko eraikinetako komunikazio bertikala 130
Erabilera publikoko eraikinetako arreta-guneak 133
Eraikin publikoetako komunak 136
Udal irisgarria 140
Informazioa eta komunikazioa 140
Erabilera publikoko eraikinetako seinaleztapena 147
"Udal irisgarria" esparruari dagokion jarduketa-fitxatan gomendatutako dokumentazioa 151

# Arau-esparrua

Euskal Autonomia Erkidegoak irisgarritasun planei buruzko eskumen osoa du.

Plan hau osatzeko indarrean dagoen irisgarritasunari buruzko legedia kontuan hartu da, Eusko Jaurlaritzak horretarako argitaratu duen zerrendaren arabera[1], Autonomia Erkidegokoa eta Estatukoa, alegia.

Araudi berri hau hobeto aplikatu ahal izateko, Indarrean dagoen Euskal Autonomi Erkidegoko Irisgarritasunaren araudi teknikoaren aplikazio-gida[2] erabili da, zaharkitua dagoen arren. Dokumentu hau Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioen Saileko Araudi eta Eraikinen Kalitatearen Kontrolerako Zerbitzuak osatu du. Gida honen irizpideak honako hauek dira:

- Esparru bakoitzeko araudi zuzentzaile bermatzaileenak onartzen dira.
- Bermea handiagoa edo txikiagoa izango den zalantzan jartzen ez denean, oinarrizko araudiko irizpideak onartzen dira.
- Dekretuak jaso ez dituen zenbait gai jasotzen dira.

## Autonomia erkidegoko araudia

- **20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna.**
- **68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.**
- 68/2000 Dekretuaren Eranskinak.
- 256/2000 DEKRETUA, 2000ko abenduaren 5ekoa. Dekretu honen bidez, ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela arautu eta Europako Batasuneko estandarri egpkitu da.
- 126/2001 DEKRETUA, uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituena.
- **42/2005 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretua aldatzeko dena.**
- Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Irisgarritasuna.
- **4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.**
- 10/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa.

[1] ISEK - Legeria.
[2] Guía de aplicación de la Normativa , 2012.

# Estatuko araudia

- **Orden TMA/851/2021, de 23 de julio, por la que se desarrolla el documento técnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y la utilización de los espacios públicos urbanizados.**
- LEY 49/1960, de 21 de julio de propiedad horizontal, reformada por la Ley 8/1999 de de abril. (última modificación: 27 de junio de 2013)
- **REAL DECRETO 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación.**
- REAL DECRETO 1417/2006, de 1 de diciembre, por el que se establece el sistema arbitral para la resolución de quejas y reclamaciones en materia de igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad por razón de discapacidad.
- REAL DECRETO 366/2007, de 16 de marzo, por el que se establecen las condiciones de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad en sus relaciones con la Administración General del Estado.
- **REAL DECRETO 505/2007, de 20 de abril, por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones.**
- **REAL DECRETO 1494/2007, de 12 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento sobre las condiciones básicas para el acceso de las personas con discapacidad a las tecnologías, productos y servicios relacionados con la sociedad de la información y medios de comunicación social.**
- REAL DECRETO 1544/2007, de 23 de noviembre, por el que se regulan las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los modos de transporte para personas con discapacidad.
- ORDEN PRE/446/2008, de 20 de febrero, por la que se determinan las especificaciones y características técnicas de las condiciones y criterios de accesibilidad y no discriminación establecidos en el Real Decreto 366/2007, de 16 de marzo.
- INSTRUMENTO de Ratificación de la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, hecho en Nueva York el 13 de diciembre de 2006 (La presente Convención entró en vigor de forma general y para España el 3 de mayo de 2008 de conformidad con lo establecido en el Artículo 45 de la misma).
- **Orden VIV/ 561 / 2010, de 1 de febrero, por la que se desarrolla el documento técnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados.**
- **Real Decreto 173/2010, de 19 de febrero, por el que se modifica el Código Técnico de la Edificación, aprobado por el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, en materia de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad.**
- DA DB-SAU/2 Documento de Apoyo, para la Adecuación efectiva de las Condiciones de Accesibilidad en edificios existentes. Publicado por el Ministerio de Fomento, diciembre 2015.
- Ley 26/2011, de 1 de agosto, de adaptación normativa a la Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad.
- Real Decreto 1276/2011, de 16 de septiembre, de adaptación normativa a la Convención Internacional sobre los derechos de las personas con discapacidad.
- Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social.
- Documento de Apoyo al Documento Básico DB-SUA Seguridad de utilización y accesibilidad. Código Técnico de la Edificación. Adecuación efectiva de las condiciones de accesibilidad en edificios existentes, de 23 de Diciembre 2016. DA DB-SUA / 2.

# Araudia, irizpideak eta gomendioak

## Udalerri irisgarria

### Hiri-ingurunea

| **Elementua** | **Oinezkoen ibilbideak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Oinezkoen ibilbide irisgarria eta jarraia bermatzea: Gutxieneko 2 m-ko zabalera eta 2,20m-ko altuera librea, oztoporik gabe.<br>— Ibilbide irisgarriak eta ez-baztertzaileak bermatzea: Oinezkoentzako ibilbide bat baino gehiago aurreikusi, gutxienez bat erabat irisgarria izanik, luzera edo kokapenagatik diskriminatu gabe.<br>— Kota-aldaketa guztiak gainditzea: Edozein mailarte gainditzeko eta ibilbide irisgarriaren jarraitasuna bermatzeko egokiak diren arrapala edo oinezkoen ibilbideak aurreikusi, bai eta bidegurutzetan ere. Zintarriaren gehienezko altuera 12cm izango da.<br>— Luzetarako eta zeharkako maldak mugatzea: Luzetarako malda (mugarik gabe %6 arte, 9m-raino %8-10 bitartean, eta debekatua >10%) eta zeharkako malda (gehienez %2) mugatzen da.<br>— Baimendutako maldak gainditzen direnean, neurri aringarriak ezarriko dira eta ibilbide irisgarri alternatibo bat bermatuko da.<br>— Oztopo fisikoak ezabatzea: Zintarriak <12cm izango dira eta ez da eskailera isolaturik egongo, ibilbidearen jarraitasun eta segurtasunerako.<br>— Atsedenerako gune estrategikoak txertatzea: Ibilbide luze edo maldatsuetan atsedenguneak aurreikusi, adinekoen eta mugikortasun murritzeko pertsonen autonomia areagotzeko. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Dentsitate baxuko eremuetan ibilbideen zabalera 1,50m-ra murriztea ahalbidetzen duen salbuespena ez aplikatzea (ikusi goian).<br>— Oztoporik gabeko ibilbide jarraien diseinua lehenestea: Beste edozein baldintzaren aurretik, ibilbidea irisgarria, segurua eta jarraia izateari lehentasuna ematea gomendatzen da.<br>— Ibilbide nagusian irisgarritasuna lehenestea: Oinezko ibilbide nagusia mailakirisgarritasun-baldintza egokiekin diseinatzea gomendatzen da, desgaitasunen bat duten pertsonak bigarren mailako edo bereizitako ibilbideak erabiltzera behartu gabe. |

| | | |
|---|---|---|
| | — Ibilbideak “desira-lerroetara” egokitzea: Oinezkoen joera naturalak jarraitzen dituzten ibilbideak egin beharko lirateke, oinezkoen zirkulazio irisgarriaren erosotasuna eta erabilera errazteko.<br>— Espaloi estu eta abiadura handiko kaleetan: Segurtasuna eta irisgarritasuna indartzeko, alde bateko espaloia soilik mantentzea eta oinezkoen ibilbideak bateratzea gomendatzen da.<br>— Espaloi estu eta abiadura baxuko kaleetan: Kaleak plataforma bakar bihurtzea gomendatzen da, irisgarritasuna eta oinezkoen segurtasuna indartzeko.<br>— Aldizkako mantentze-lanak ziurtatzea: Ibilbideen irisgarritasuna bermatzeko, beharrezkoa litzateke berrikuspen erregularrak egitea eta sortzen diren oztopoak kentzea. | |
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  | **Guía de accesibilidad en los espacios públicos urbanizados V.1.0.**<br>MITMA - Dirección General de Agenda Urbana y Arquitectura (2021).<br>https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-drupal/estudios_y_publicaciones/guia_accesibilidad.pdf |
| |  | **Manual de Accesibilidad para Espacios Públicos Urbanizados del Ayuntamiento de Madrid Versión 2022.**<br>Dirección General de Accesibilidad del Área de Obras y Equipamientos del Ayuntamiento de Madrid (2022).<br>https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/OfAccesibilidad/Manual%20accesibilidad%20para%20espacios%20p%C3%BAblicos%20urbanizados%202022.pdf |
| |  | **Accesibilidad Universal y Diseño para Todos. Arquitectura y Urbanismo.**<br>Fundación ONCE, Fundación COAM (2011).<br>https://www.upv.es/contenidos/CAMUNISO/info/U0578035.pdf |

| | | |
|---|---|---|
| |  | **Manual de soluciones tipo para la accesibilidad de itinerarios peatonales en espacios públicos de la Comunitat Valenciana.**<br>Pablo Benlloch (Dirección General de Arquitectura y Vivienda de la Generalitat Valenciana, 2022).<br>https://habitatge.gva.es/auto/arquitectura/Estudios-accesibilidad/Accesibilidad%20Itinerarios%202021/02.MANUAL%20DE%20SOLUCIONES%20TIPO.pdf |
| |  | **Guía de buenas prácticas de accesibilidad universal del Ayuntamiento de Albacete.**<br>Accesia, COCEMFE (2024).<br>https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2024/07/Guia-de-Buenas-Practicas-de-Accesibilidad-Universal-del-Ayuntamiento-de-Albacete-v1.pdf |
| |   | **Ciudad y territorio justo. Accesibilidad universal.**<br>Observatorio 2030. (2025).<br>https://sid-inico.usal.es/wp-content/uploads/2025/04/Ciudad-y-Territorio-justo-Accesibilidad-universal.pdf |
| |  | **La accesibilidad universal en los municipios: guía para una política integral de promoción y gestión**<br>Equipo ACCEPLAN, Instituto de Mayores y Servicios Sociales. (2006).<br>https://ddd.uab.cat/pub/estudis/2007/hdl_2072_4739/La_Accesibilidad_Universal_en_los_Municipios-2006.pdf |

**Irudiak**




*Oinezko ibilbide irisgarri eta jarraiak* ***gutxienez*** *2,00m-ko zabalera eta 2,20 m-ko altuera izango du. Neurri hauek minimoak direla kontuan hartzea gomendatzen da. Ikusi* ***I. Memoria*** *dokumentuko "1.2.2. Desgaitasuna eta mendekotasuna genero-ikuspegitik" atala.*





*Askotan arazoa ez dator espazioen diseinutik, horren kudeaketatik baino. Esaterako, ikusmen baxuko pertsonentzat, finkoak ez diren oztopoak izaten dira (behar ez den lekuan dauden ibilgailuak, terrazak...).*



*Espaloiak minimora dimentsionatzen badira aurreikusi gabeko estuguneak sor daitezke, adibidez baterian aparkatutako ibilgailuek sortutakoak.*



*Sarritan, baterian aparkatutako ibilgailuek espaloien zabalera murrizten dute eta hori ekiditeko mutiloiak edo/eta bestelako elementuak jarri ohi dira. Elementu horiek oinezko ibilbidean eraginik ez izateko galtzadan jartzea gomendatzen da.*

| **Elementua** | **Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak. Zebra-bideak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Oinezkoen ibilbide irisgarria eta jarraia bermatu behar da, oztoporik gabe.<br>— Oinezkoen pasabideen lehentasuna: Oinezkoen ibiak ibilgailuenen aurrean lehenetsiko dira, beti ere biak bereiziz, oinezkoen segurtasuna bermatzeko.<br>— Bidegurutzearen kokapenaren optimizazioa: Bidegurutzearen kokapena oinezko ibilbidearekin lerrokatu, oinezkoen eta ibilgailuen arteko ikusmena egokia den puntuan.<br>— Neurri irisgarriak bermatzea: Oztoporik gabeko 2,00 m-ko gutxieneko zabalera mantendu, pasabidearen eta errepidearen artean gehienezko koska 4 mm izanik.<br>— Ibilbidearen maldak kontrolatzea: Luzetarako malda ≤8%, tarte laburretan (2 m gehienez) ≤%10 eta zeharkako maldan ≤1,5%.<br>— Seinaleztapen eraginkorra: Seinaleztapen bertikal argiztatua eta seinaleztapen horizontalak ezartzea, bidegurutzeen ikusgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko.<br>— Ukimen-zoladurak erabiltzea: Norabide-zerrenda eta arrisku-zerrenda adierazleak erabili, kolore kontratatukoak. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Pasabideak oinezko ibilbidearekin bat egitea: Pasabideak oinezko ibilbide nagusiekin lerrokatzea gomendatzen da, gurutzatzeko distantzia murrizteko eta oinezkoek pasabideetatik kanpo gurutzatzea saihesteko.<br>— Pasabidea goratua egitea: Zebra-bideak goratzea gomendatzen da, oinezkoen lehentasuna indartzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta ibilgailuen abiadura murrizteko. Bereziki lagungarria izan daiteke gurpildun aulkia erabiltzen duten edo haur-kotxea edo erosketa-orga daramaten pertsonentzat.<br>— Pasabideen hasieran oztoporik ez izatea: mutiloiak, jardinerak edo altzariak ez dute pasabidearen jarraitutasuna eten behar, ezta igarotze segurua zaildu ere.<br>— Pasabidearen luzera minimizatzea: Ibilgailuen ibia estututzea edo espaloia galtzadaraino zabaltzea erabiltzea gomendatzen da, oinezkoen eta gidarien ikusgaitasuna areagotzeko, batez ere, pasabidea zebra-bide denean, galtzadan margotua, alegia.<br>— Aldapetan dauden pasabideetan zeharkako malda murriztea: Ibilbide maldatsuetan zebra-bideak malda gutxien duten eremuetan jartzea gomendatzen da. Bidegurutze osoak goratzeak maldei koskak gehitzea ekidin dezake, joan-etorri erosoagoak erraztuz.<br>— Seinale akustikoak: Pasabide nagusietan seinale akustikoak jartzea gomendatzen da, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonek segurtasunez eta autonomiaz ibilbide nagusiak erabiltzea ahalbidetzeko.<br>— Berariazko argiztapena: Oinezko segurtasuna bermatzeko, bide-argiztapenaz gain, pasabidean berariazko argiztapena jartzea gomendatzen da. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus "Oinezko ibilbideak" ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



***Zebra-bide goratua norabide bikoitzeko galtzadan.*** *Pasabidean ikusgaitasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea gomendatzen da: espaloia aparkaleku-lerroraino ekarriz, aparkaleku-plaza bat kendu eta hiri-altzariz hornitu, berariazko argiztapena ezarri...*





***Zebra-bide goratua norabide bakarreko galtzadan.*** *Pasabidea ahalik eta laburrena izateak oinezkoen segurtasuna areagotzen du, galtzada estutzeak ibilgailuek abiadura murriztea bait dakar.*







*Duela ia 25 urte ezarri zen lehen irisgarritasun-araudia EAEn. Ibilbide horretan ohikoa izan da zebra-bideen ibien tratamenduari dagokionez araudiaren aplikazio heterogeneoa hautematea (goian bi adibide). Gainera, estatu mailako araudia agertu zenean, zenbait alderditan kontraesanak agertu ziren (zebra-bideetan esaterako), baina pixkana ezarri da eredu adostu bat (behean adibide bat, soilik kolore-kontrastea falta duena).*





*Goratutako zebra-bideek oinezkoen ibilbidea errazteaz gain, malda leunegia ez denean, ibilgailuen abiadura moteltzen laguntzen dute.*







*Ibiak eraikitzeak, aldiz, arazoak eman ohi ditu. Irudietan koskarik gabeko ibiak bermatzeko hainbat irtenbide: Bermeo, Legorreta, Bermeo.*



*Ez litzateke zebra-biderik jarri behar kotxeen sarrera-irteerak ematen diren puntuetan.*





*Batzutan arazoa ez da orografia, plangintzako lehen fasetan irisgarritasuna kontuan ez izatea baizik. Bermeo.*



*Bidegurutzeetan ohikoa da oinezkoek desbideraketak egin behar izatea, askotan zeharkako malda maximoa gainditzen duen ibilbidea egin behar izaten dutelarik.*



*Biribilguneetan areagotu egiten da desbideraketaren luzera.*

| **Elementua** | **Oinezkoen eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | Oinezkoen eta ibilgailuen arteko eremu partekatutuak gomendatzen dira, batez ere, espaloi estuek ez dutenean oinezkoen irisgarritasuna bermatzen eta alde bateko espaloi irisgarria bideragarria ez denean. Horretarako, ibilgailuak abiadura baxuan ibiltzeko neurriak ezarriko dira:<br>— Oinezkoen segurtasuna bermatzea: Oinezkoak babesteko eta bidegurutze eta bide publikoetan arriskuak murrizteko seinaleak eta informazioa jarri.<br>— Oinezkoen lehentasuna bermatzea: Oinezkoen pasabidea nagusi izateko ibilbideak eta gurutzaketak diseinatzea, ikusgarritasuna eta erosotasuna bermatuz.<br>— Ibilgailu zenbakia eta hauen abiadura murriztea: Hiri-diseinuko neurriak ezarriz, ibilgailuen abiadura mugatuko dira, oinezkoen arriskuak minimizatuz. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Oinezkoen espazio seguruak: Gutxienez alde batean, trafikorik eta oztoporik gabeko ibilbide irisgarri jarraia bermatzea gomendatzen da.<br>— Seinaleztapen egokia: Trafiko-seinale kopurua mugatzea komeni da, gehiegikeriak oinezkoen lehentasuna ahuldu eta segurtasuna murriztu baitezake.<br>— Ukimen- eta kolore-lerro egokiak: Zintarria ezabatzean, itsuentzat, haurrentzat eta adinekoentzat funtsezko erreferentziak galtzen dira. Bestalde, zutoinez edo beste oztopo finko batzuez ordezkatzeak oztopo berriak sortu ditzake.<br>— Garraio publikoa eta trafikoa murriztea: Bide partekatuetatik garraio publikoa kentzea eta bertako trafikoa desbideratzea gomendatzen da, trafiko maila murrizteko eta ibilbideen segurtasuna eta erosotasuna handitzeko.<br><br>Oinezkoen lehentasuna bermatzeko oinarrizko irizpide batzuk:<br>— Azaleren tratamendua: Testura eta kolore ezberdinak erabiliz eremuak bereiztea gomendatzen da, oinezkoek espazioak modu intuitiboan identifikatzeko.<br>— Hiri-elementuen antolaketa: Egonlekuak eta hiri-jarduerarako espazioak sortzea, ibilgailuen ibilbide zuzenak saihestuz ibilgailuen abiadura murrizteko.<br>— Gune erosoak: Oinezko talde zahurgarrienen orientazioa eta segurtasuna bermatzeko pentsatuak.<br><br>COCEMFEren ordenazio-proposamenak:<br>— Sarrera bereizia: Eremuaren hasiera eta amaiera seinaleztatzea, ibilgailuak ohartarazteko.<br>— Ibilbide zuzenak saihestea: Ibilgailuen ibilbidea hasieratik amaierara ikusi ez dadin konfiguratu, abiadura murriztu eta segurtasuna handitzeko.<br>— Ibilgailuentzako pasabide-zabalera minimoa: Pasabidea estutuz eta hiri-altzari estrategikoak erabiliz.<br>— Zoladura jarraia: Zirkulazioak banatzen dituzten zoladura-bandak saihestea.<br>— Aparkaleku etenak: Aparkatutako ibilgailuen kokapenak “horma” bat sortzea saihesteko aparkalekuak modu etenean kokatzea gomendatzen da.<br>— Atsedenguneak gehitzea: Banku eta atseden-elementuak leku estrategikoetan |

| | | |
|---|---|---|
| | kokatzea gomendatzen da, lekuari erantzuteko behar besteko espazioarekin. | |
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  | **Informe sobre plataformas únicas.**<br>COCEMFE - Grupo de Trabajo de Accesibilidad (2023).<br>https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2023/06/informe-plataforma-unicas-1.pdf |
| |  | **La accesibilidad en los espacios públicos con plataforma única de convivencia. Análisis y Clasificación de las soluciones existentes. Avances y nuevos problemas. Posibles parámetros e Indicadores de Accesibilidad.**<br>Delfín Jiménez (2015).<br>https://oa.upm.es/40009/1/DELFIN_JIMENEZ_MARTIN.pdf |
| |  | **La rehabilitación de cascos históricos en clave de accesibilidad; la problemática de los Espacios de Plataforma Única de Convivencia.**<br>Delfín Jiménez (2015).<br>http://femp.femp.es/files/566-1891-archivo/delfin%20jimenez.pdf |
| |  | **Tipos de plataformas únicas. Condiciones de accesibilidad.**<br>ONCE - Dirección de Autonomía Personal, Tecnología y Accesibilidad (2024).<br>https://www.discapnet.es/sites/default/files/2024-10/Plataformas-Unicas-Condiciones-de-accesibilidad-ONCE-2024-2.pdf |

| | | |
|---|---|---|
| |  | **Los espacios compartidos: documento de toma de posición de la Unión Mundial de Ciegos.**<br>Martine Abel Williamson (2016).<br>https://www.once.es/dejanos-ayudarte/la-discapacidad-visual/revista-red-visual/numeros-anteriores-revista-integracion/2016-integracion-69/Los-espacios-compartidos-documento-de-toma-de-posicion-de-la-Union-Mundial-de-Ciegos |
| |  | **Criterios de movilidad: las zonas peatonales.**<br>Fundación RACC (2008).<br>https://imagenes.racc.es/pub/ficheros/adjuntos/adjuntos_7_zones_de_vianants_cast__08_07_22_2_jzq_1041b56e.pdf |
| **Irudiak** | <br>*Seinaleztatzea ez da nahikoa: diseinuaren bitartez egiten ez bada (estuguneak, zoladura desberdinak, trafikoari lotutako seinaleztapena kentzea, hiri-altzariak jartzea...) gutxitan da eraginkorra.* | |



*Plataforma bakarreko guneen ezarpena herrietako erdiguneetan abiatu ohi da, merkataritza- eta ostalaritza-jardueren dentsitatea altua den gube historikoetan. 60-70 urteetako hamarkadatan hainbat herritako periferia maldatsuetan garatu ziren auzo asko eta askotan, plataforma bakarra eraikitzea ez da hautu bat, ezinbesteko irtenbidea baizik. Izan ere garai haietako estandarrak (espaloi estuak, garajerik gabeko etxebizitza-eraikinak...) ez dira bateragarriak egungo beharrekin.*





*Oinezkoentzako gunea dela adierazten du zoladurak Zarauzko San Frantzisko kalean. Kale estuetan plataforma bakarra ezartzean horren estuak ez direla jabetzen gara, bi espaloi eta galtzada ezartzeak estutzen dituela, alegia.*





*Plataforma bakarrean ibilgailuen ibilbidea mutiloi bidez adierazi eta mugatu da. Hori dela eta, espazioak jarraitasuna galdu du oinezkoentzat.*

| **Elementua** | **Zoladurak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Oinezkoentzako zoladura seguruak: Ibilbideak zoladura gogor, egonkor eta irristagaitzarekin diseinatzea eta mantentzea, 4 mm-tik gorako koskarik gabe.<br>— Zoladura bigunen egonkortasuna: Zoladurak behar bezala trinkotuak egon behar dira, hondoratze eta mugimendurik ez izateko.<br>— Erretenak, erregistroak eta txorkoak: Oinezko ibilbidean kokatutako elementuak honen maila berean jarriko dira eta irristagaitzak izango dira, gehienezko 1 x 1 cm-ko irekierekin.<br>— Elementu goratu nabarmenak: Lurzoruaren mailan ez dauden elementuak altxatuak egongo dira, gutxieneko 15 cm-ko altuerarekin, erraz hautemateko modukoak eta estropezuak saihesteko moduan.<br>— Ibilbide irisgarrietatik kanpo dauden irekiduren mugak: Gehiegizko irekiera: 2,5 x 2,5 cm.<br>— Ukimen-zoladurak zoladuraren ezarpen diseinuan: Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako orientazioa eta segurtasuna bermatzeko. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Zoladuraren homogeneotasuna: Zoladurak ahal den neurrian jarraiak eta uniformeak izatea gomendatzen da, oinezkoen orientazioa errazteko eta estropezu-arriskuak murrizteko.<br>— Materialen konbinazio egokia: Zoladura mota ezberdinen konbinaketak oztopo fisikoak edo desorientazioak sor ez ditzan, oinezko ibilbideen jarraitasun pertzepzioan lagunduko duen zoladura erabiltzea gomendatzen da.<br>— Garbiketa eta mantentze-lanak: Zoladurak maiztasunez garbitu eta mantentzea gomendatzen da, honen ezaugarriak eta segurtasuna bermatzeko. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | <br>**Guía para la utilización de pavimentos en espacios públicos.**<br>Ayuntamiento de Málaga, Área de Accesibilidad y Gerencia Municipal de Urbanismo (2011).<br>https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2021/07/Guia-para-la-utilizacion-de-pavimentos-en-espacios-publicos.pdf |

| | |
|---|---|
| |   **Entornos urbanos seguros, confortables y accesibles. Criterios de uso y diseño para pavimentos.** Raquel García Campillo (2015). https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2020/05/Pavimentos-accesibles-1.pdf |
| |  **Pavimentos urbanos: criterios para su uso y diseño.** Raquel García Campillo (2015). http://riberdis.cedid.es/bitstream/handle/11181/5491/Pavimentos_urbanos_criterios_uso_dise%C3%B1o.pdf |
| **Irudiak** |  *Lezoko Donibane kalean oinezkoen eta ibilgailuen eremuak zoladurarekin desberdindu dira, material zein kolore ezberdinak erabilita.* |



*Galtzada-harriz osatutako zoladurak ez dira seguruak, irisgarriak edo/eta erosoak, oinezkoaren baldintzen arabera.*



*Erroman, galtzada-harriak dauden azalera handietan harri leunezko pasabideak ezarri dira, ibilbide erosoagoak bermatzeko.*



*Ibilbide maldatsuetan zoladura irrisgaitzak lehenetsi behar dira, espero ez den zoladurek ere arazoak eman bait ditzakete (Bermeoko adibide honetan hormigoizko baldosa marratu behar izan dute irristaketak eta erorketak direla-eta).*



*Erorketa-arriskua: koskatxoak.*



*Erorketa-arriskua: irristakorra.*



*Zoladura anitzak eta araudiaren ezarpen zorrotzak nahasmendua sor dezake, irisgarritasun sentsorialare eta kognitiboaren kaltetan.*





*Naturalizazio-irizpideak ezarriko ditugu datozen urteotan: irisgarritasunarekin uztartu beharko ditugu.*

<table>
<tr><th>Elementua</th><th>Seinaleztapen-zoladura.</th></tr>
<tr><td>Eremua<br><br>Azpieremua</td><td>Hiri-ingurunea.<br><br>Oinezko ibilbideak.</td></tr>
<tr><td>Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?</td><td>— 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.</td></tr>
<tr><td>Zer baldintza ezartzen ditu araudiak? Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko.</td><td>— Fatxadak ez daudenean erreferentziak ezartzea: Fatxada edo eraikin erreferentziarik ez dagoenean, oinezkoen ibilbideak gida-zerrenda batekin orientatuko dira.<br>— Ukimen-zoladura motak bereiztea: botoiak erabiltzea ohartarazpenerako eta gida-zerrendak bideratzerako.<br>— Ukipen- eta ikusmen-pertzepzioa lantzea: Testura ukigarriak eta kolore kontrastatuak erabiliko dira, inguruko zoladurarengandik bereizikz.<br>— Material iraunkorrak eta seguruak hautatzea: Azalera irristagaitzak, erresistenteak eta iraupen luzekoak erabiltzea.<br>— Bideratzeko gida-zerrendak optimizatzea:<br>_ Erreferentzia gabeko ibilbideetan: 40 cm-ko zerrendak.<br>_ Sestra-aldaketetan:<br>_ Eskailera edo arrapalaren zabalera eta 1,00-1,20 m-ko sakonera.<br>_ Igogailuetan: sarbidearen zabalera eta 0,80-1,20 m-ko sakonera.<br>— Ohartarazpen-zerrenda eraginkorra ezartzea: Ohartarazi beharreko elementuan zehar ≥ 60 cm-ko zabalera duen ukipen-zoladura botoiduna jartzea (arriskuak, gurutzaketak, maila-aldaketak, ibilbidearen amaiera).<br>— Arau-bateraezintasunak ebaztea: oinezkoentzako pasabideetan, 68/2000 Dekretuaren eta TMA/851/2021 Aginduaren arteko desberdintasunak kontuan hartzea.</td></tr>
<tr><td>Irizpideak eta gomendioak</td><td>— Ukimen-zoladura funtsezko puntuetan: Zebra-bideetan, erabilera publikoko sarreretan eta norabide aldaketetan kokatzea gomendatzen da, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen orientazioa eta segurtasuna indartzeko.<br>— Seinaleztapen taktikoa eta kromatikoaren konbinaketa: Testura eta kolore bereizgarriak integratzea komeni da, zailtasun fisiko eta kognitiboak dituzten pertsonen espazio-ulermena errazteko.<br>— Jarraitasuna eta koherentzia seinaleztapen zoladuran: Ukimen- eta ikusmen-zoladura modu koherente eta jarraian erabiltzea, gehiegizko erabilera egin gabe, gida argiak eta ulergarriak izan daitezen erabiltzaile guztientzat.<br>— Oztoporik gabe mantendutako eremuak: Ukimen-zoladura eta seinaleak kokatzen diren espazioak libre egongo dira, oztopo fisikorik gabe (adibidez, mutiloiak, lorontziak, aparkalekuak).<br>— Formatu anitzeko informazioa: Seinale eta ukimen-zoladura erabilgarri izan arren, informazioa beste formatuetan ere eskaintzea gomendatzen da (audio, braille, ikono), inklusioa maximizatzeko.</td></tr>
</table>

| | | |
|---|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  | **Guía de accesibilidad en los espacios públicos urbanizados V.1.0.**<br>MITMA - Dirección General de Agenda Urbana y Arquitectura (2021).<br>https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-drupal/estudios_y_publicaciones/guia_accesibilidad.pdf |
| |  | **Manual de Accesibilidad para Espacios Públicos Urbanizados del Ayuntamiento de Madrid Versión 2022.**<br>Dirección General de Accesibilidad del Área de Obras y Equipamientos del Ayuntamiento de Madrid (2022).<br>https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/OfAccesibilidad/Manual%20accesibilidad%20para%20espacios%20p%C3%BAblicos%20urbanizados%202022.pdf |
| |  | **Recomendaciones de accesibilidad para la utilización de pavimentos tacto visuales en sectores de juegos.**<br>Dirección General de Accesibilidad del Área de Obras y Equipamientos del Ayuntamiento de Madrid (2025).<br>https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/OfAccesibilidad/EI/MesaAccesibilidad/Transversalidad/Ficheros2025/RecomendacionesPavimentosTactoVisualesSectoresJuegos.pdf |
| |  | **Condiciones Básicas de Accesibilidad en Espacios Públicos Urbanizados. Fichas Técnicas de Accesibilidad Universal.**<br>Sinpromi. Sociedad Insular para la Promoción de las Personas con Discapacidad del Cabildo de Tenerife.<br>https://crokis-sites.fra1.cdn.digitaloceanspaces.com/sinpromi/wp-content/uploads/2023/06/19101649/2023-PAVIMENTOS-2.pdf |

**Irudiak**





*Zoladura ohartarazlea ondo jartzen ez bada ez du bere funtzioa betetzen. Kasu honetan azalera handiegia hartzen du eta ikusmen-desgaitasuna duen pertsonak ez du orientatzerik.*





*Duela ia 25 urte ezarri zen lehen irisgarritasun-araudia EAEn. Ibilbide horretan ohikoa izan da zebra-bideen ibien tratamenduari dagokionez araudiaren aplikazio heterogeneoa hautematea (goian bi adibide). Gainera, estatu mailako araudia agertu zenean, zenbait alderditan kontraesanak agertu ziren (zebra-bideetan esaterako), baina pixkana ezarri da eredu adostu bat: ikus ondorengo argazkia.*





*Eskaileraz ohartarazteko zoladurak ez da egokia.*



*Erreferentzia gabeko ibilbideetan norabidea mantentzen lagunduko duten gida-zerrendak jarriko dira, irudian bezala.*



*Autobus geraluko ukipen-zoladurak.*

| **Elementua** | **Ibilbide maldatsuak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | Maldaren ondorioz irisgarritasun irizpideak betetzen ez dituzten oinezko ibilbideak dira. Araudiak ez du ibilbide hauentzat zehaztapen espezifikorik ematen.<br>Horri aurre egiteko, neurri aringarriak ezarriko dira:<br>— Alternatiba irisgarriak bermatzea: Ingurunea modu autonomoan, jarraian eta seguruan erabiltzeko aukera eskaini eta seinalatu.<br>— Maldadun ibilbideak “arrapala” gisa tratatu, ibilbidearen erabileran lagunduko duten atsedenguneak eta eskubandak ezarriz.<br>— Neurri aringarriak ezartzea: Eskubanda bikoitz jarraiak bi aldeetan ezarri. Erorketak saihesteko babes-barandak jarri, ibilbidearen alboan desnibela dagoenean.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Eskubandak eta barandak: Ikus “Eskubandak eta barandak” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | Neurri aringarriak, arauditik kanpo:<br>— Eskubandak bi aldeetan: Eskubanda bikoitzak alde bietan jartzean, erabiltzaleak aukera dezake, bere ahalmenaren eta egoeraren arabera, zein erabili. Ikusmen murriztua dutenentzat ere lagungarria izango da eskubandak jarraiak eta etengunerik gabekoak izatea.<br>— Tarteko atsedenguneak ezartzea: Malda luzeetan atsedenguneak jartzeak, nekea murrizteko aukera emango die herritarrei.<br>— Zoladura egonkor eta irristagaitzak jartzea: Ibilbide maldatsuetako zoladura segurua eta irristagaitza izatea ezinbestekoa da, batez ere baldintza metereologiko txarrak daudenean erorketak saihesteko.<br>— Bidegurutzeak kontzentratzea: Zebra-bideak bidegurutzetan kokatzea gomendatzen da, pasabidearen malda murrizteko aukera emateko eta oinezkoen ibilbideen eraginkortasuna areagotzeko.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Eskubandak eta barandak: Ikus “Eskubandak eta barandak” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



*Ibilbide maldatsuetan neurri aringarriak jartzea proposatzen da: malda luzeetan atsedenguneak jar daitezke ibilbidean lauguneak sortuz. Bi kasuetan espaloitik kanpo jarri da atsedengunea: aparkaleku baten lekua hartuz bat eta hegalkin gisa, bestea.*





*Ermuko eta Andoaingo adibide hauetan, eserlekuak espaloiaren ondoan jarri dira, lorategietan plataforma lauak sortuta.*



*Bermeoko eserleku hau jartzerakoan ez da kontuan hartu ibilbidearen malda: eserlekuaren erabilgarritasuna eta erosotasuna zailtzen du honek.*



*Askotan, espaloi gabe hobeto: ibilbide maldatsuetan espaloia kentzea lagungarria izan daiteke, malda txikiena duen ibilbidea aukeratzea ahalbidetzen duelako. Zarragoitxi kalea, Bermeo.*



*Batzutan arazoa ez da orografia, plangintzako lehen fasetan irisgarritasuna kontuan ez izatea baizik. Bermeo.*







*Atari bakoitzaren aurrean eremu laua jartzeko aparkaleku lerroa okupatu da, gutxienezko 2,00m-ko zabalera duen ibilbide jarraia bermatuz. Eskubandak bi aldeetan jar daitezke, baina jarraitasuna bermatuko duen aldea lehenetsiko da.*

| **Elementua** | **Arrapalak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Neurri egokiak bermatzea: Gutxienez 2,00 m-ko zabalera, 1,80 m-ko zabalera eta 2,20 m-ko altuera librea izango dute.<br>— Onartutako maldak: Luzetarako maldak ez du %8 gaindituko eta zeharkakoak %1,5. Malda handiagoak onartzeko baldintzak honako hauek dira:<br>_ %10: tartearen luzera l≤ 3,00m.<br>_ %8: tartearen luzera l≤ 6,00m.<br>_ %6: tartearen luzera l≤ 9,00m.<br>— Luzera eta atsedenguneak optimizatzea: Eskailera-buru gabeko gehienezko luzera 9,00 m-koa izango da. Tarteko eskailera-buruak jarriko dira, gutxieneko 2,00 m luzera dutenak, etenaldiak eta maniobra seguruak egiteko.<br>— Euskarri- eta babes-elementuak instalatzea: Eskubanda bikoitz jarraiak ezarriko dira bi aldeetan. Zabalerak 2,40m gainditzen badu, erdibideko eskubanda jarriko da.<br>— Babes gogor eta egonkorreko alboko zokaloa, gutxienez 10cm-ko altuerakoa.<br>— Alboko desnibelak badaude, babes-barandak instalatzea gomendatzen da, erorketak sahiesteko eta segurtasuna areagotzeko.<br>— Sarbide-azalera libreak ziurtatzea: Maniobrarako 1,80 m-ko diametro librea duen espazioa bermatuko da.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Seinalezpen zoladura: Ikus “Seinaleztapen zoladura” fitxa.<br>— Eskubandak eta barandak: Ikus “Eskubandak eta barandak” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Malda gutxiko arrapalak konfiguratu: Ahal den heinean %6-tik beherako maldak erabiltzea gomendatzen da. Horrek araudiak ezartzen dituen betekizun zorrotzak saihestea ahalbidetzeaz gain, espazio irisgarriago eta erosoagoak eraikitzea erraztuko du. Malda arinak pertsona ororentzat dira erosoak eta %6aren azpitik baldin badaude diseinua ez dago horren baldintzatuta. Honela, araudiaren berrinterpretazioa egin daiteke, maldak kolore kontrastatuan adieraziz edo/eta eskubanda bakunak jarriz, horrela ingurune “ortopedikoak” sortu gabe.<br>— Aukera irisgarriak ematea: Arrapalak araudia beteten ez duenean aukera irisgarriak aurreikusiko dira.<br>— Atsedengune estrategikoak: Arrapala luzeetan tarteko atsedenlekuak ezarriko dira, atseden hartzeko aukera egon dadin. Atsedengune horretan eserlekuak edo euskarri iskiatikoak jartzea gomendatzen da, beti ere, ibilbidearen zabalera murriztu gabe.<br>— Ibilbidearen ikusgarritasuna eta segurtasuna areagotzea: Argiztapen egokia eta ibilbide osoaren ikusgarritasuna ziurtatu, erabiltzaileen segurtasuna eta autonomia bermatzeko.<br>— Eskubandak bi aldeetan: Eskubanda bikoitzak alde bietan jartzean, erabiltzaleak aukera dezake, bere ahalmenaren eta egoeraren arabera, zein erabili. Ikusmen murriztua dutenentzat ere lagungarria izango da eskubandak jarraiak eta etengunerik gabekoak izatea. |

| | |
|---|---|
| | — Aldizkako mantentze-lanak: Irisgarritasun-baldintzak ez murrizteko mantentze-lanak aldizka eta erregulartasunez egingo dira.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Seinalezpen zoladura: Ikus “Seinaleztapen zoladura” fitxa.<br>— Eskubandak eta barandak: Ikus “Eskubandak eta barandak” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |
| **Irudiak** | <br>*Arrapala irisgarriak bete beharreko diseinu-baldintzak.* |



*Arrapalak araudia betetzea ezinbestekoa da erabilera segurua bermatzeko. Ondarroa.*



*Arrapalek atseden hartzeko eskailera-buruak izan behar dituzte, eta zenbat eta malda handiagoa izan, orduan eta laburragoak izango dira hauen arteko tarteak. Asko dira tarte horizontalik gabeko arrapalak, Ordiziako hau, esaterako.*



*Eskubanda bikoitza alde bakarrean dago eta bere altuerak ez dira egokiak.*



*Andoaingo Arrate Pilotalekuko arrapala eta seinaleztapena. Araudiak ezartzen dituen eskakizunak betetzen ditu.*

| **Elementua** | **Eskailerak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Arautako maila kopurua eta proportzioak: 3-12 maila izango ditu, bozelik gabe. Maila bakoitzak ≥35 cm-ko urratsa izango du, irristagaitza eta koskarik gabekoa. Mailarte gabeko eskailerak debekatuta daude eta honek ≤15 cm-ko altuera izango du.<br>— Dimentsioak eta espazio librea bermatzea: Eskailearen gutxieneko zabalera 2,00m-koa izango da eta altuera librea ≥2,20 m. Eskailera-azpia 2,20m-ko altuera librea izan arte itxita egongo da.<br>— Hasiera eta amaieran, oztoporik gabeko espazioa bermatuko da, gutxienez 1,50m-ko zabaleran. Tarteko eskailbururik balego, gutxienez 1,50m-ko zabalera izango du.<br>— Ukimen- eta ikusmen-seinaleak jartzea:<br>_ Eskailearen norabidearekiko perpendikularra den artekadun zoladura seinalatzailea: 1,20 m (sakonera) x eskailearen zabalera.<br>_ 5 cm-ko zabalera duen zerrenda, testura eta kolore kontrastatua dituena, mailagainaren ertzetik 3 cm-ra.<br>— Euskarri- eta babes-elementuak instalatzea: Eskubanda bikoitz jarraiak ezarriko dira bi aldeetan. Zabalerak 2,40m gainditzen badu, erdibideko eskubanda jarriko da.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Seinalezpen zoladura: Ikus "Seinaleztapen zoladura" fitxa.<br>— Eskubandak eta barandak: Ikus "Eskubandak eta barandak" fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Aukera irisgarriak ematea: Eskailera ez da ibilbide irisgarria, beraz, hurbil kokatutako aukera irisgarria aurreikusi beharko da, erabiltzaile guztiek modu ez-diskriminatzailean joan-etorri ahal izan daitezen.<br>— Eskaileren hasiera eta bide publikoa bereiztea: Lehen mailarte bide publikotik bereiztea gomendatzen da, erorketak saihesteko.<br>— Atsedengune estrategikoak: Eskailera-tarte luzeetan atsedenlekuak ezartzea gomendatzen da, eserlekuz edo euskarri iskiatikoz hornituta, beti ere, ibilbidearen zabalera murriztu gabe.<br>— Ibilbidearen ikusgarritasuna eta segurtasuna areagotzea: Argiztapen egokia eta ibilbide osoaren ikusgarritasuna ziurtatu, erabiltzaileen segurtasuna eta autonomia bermatzeko.<br>— Eskubandak bi aldeetan: Eskubanda bikoitzak alde bietan jartzean, erabiltzaleak aukera dezake, bere ahalmenaren eta egoeraren arabera, zein erabili. Ikusmen murriztua dutenentzat ere lagungarria izango da eskubandak jarraiak eta etengunerik gabekoak izatea.<br>— Aldizkako mantentze-lanak: Irisgarritasun-baldintzak ez murrizteko mantentze-lanak aldizka eta erregulartasunez egingo dira. |

| | |
|---|---|
| | Ohar teknikoak:<br>— Seinalezpen zoladura: Ikus “Seinaleztapen zoladura” fitxa.<br>— Eskubandak eta barandak: Ikus “Eskubandak eta barandak” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |
| **Irudiak** | <br>*Eskailerek irisgarritasunari dagokionez bete beharreko baldintzak.* |





*Oso ohikoa da eskailerak aldapen kontra errematatzeko modu hau. Irisgarritasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik ez da irtenbide ona.*





*Dimentsio eta forma irregularrak ekiditea gomendatzen da, azalera irregularretan berdeguneak jarriz, adibidez. Eskubandak jartzeak segurtasunean lagunduko luke.*



*Mailak ez dira hautematen eta eskubandak falta dira, erorketa arriskua areagotuz.*



*Mailak ez dira kromatikoki bereizten.*



*Kromatikoki desberdidutako mailek segurtasun baldintzak areagotzen dituzte.*





*Mailagainetan zerrenda kontrastatua jartzea garrantzitsua da, desnibelak detektatzen laguntzen baitu.*



*Araudiak ezartzen duen 5cm-ko zerrenda, ertzetik 3cm-tara.*



*Bizikleten erabilera aurreikusten den inguruneetako eskaileretan errai bat kokatzea gomendatzen da, arrapalarik ez badago.*



*Eskailera mekanikoen inguruko gomendio orokorra: igogailua da pertsona ororen irisgarritasuna bermatzen duen elementu bakarra.*

| **Elementua** | **Eskubandak eta barandak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Ezarpena: Bi aldeetan eskubanda bikoitza jarriko da. Beheko eskubandaren altuera 70±5 cm; goiko eskubandaren altuera 100±5 cm. Gainera, 2,40 m baino zabalagoak diren eskaileretan tarteko eskubanda jarriko da. Erorketa arriskua balego, barandak ezarriko dira.<br>— Diseinu ergonomikoa: 4-5cm-ko diametroa, hormarekiko gutxienez 4 cm bananduta. Eskubanden muturrak 45cm luzatuko dira, ibilbide irisgarria inbaditu gabe eta errematatu egingo dira, lotuneak sahiesteko.<br>— Kota-diferentzia esanguratsuetan babesa: Baranda jartzea derrigorrezkoa da kota-aldaketa 55cm-tik gorakoa denean. Kota diferentzia 6m-tik beherakoa bada ≥ 90 cm altuerakoa eta 6 m-tik gorakoa bada ≥ 1,10 m altuerako baranda jarriko da. Baranda-tartea 10cm-koa izango da gehienez. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Eskubanden jarraitasuna: Ibilbide luzeetan eta malda handikoetan etengune gabeko eskubandak aurreikustea gomendatzen da. Jarraitutasunak adinekoen eta mugikortasun urriko pertsonen autonomiari laguntzen dio, eta gida-funtzioa betetzen du ikusmen murriztua duten pertsonentzat.<br>— Eskubandak bi aldeetan: Eskubanda bikoitzak alde bietan jartzean, erabiltzaleak aukera dezake, bere ahalmenaren eta egoeraren arabera, zein erabili. Ikusmen murriztua dutenentzat ere lagungarria izango da eskubandak jarraiak eta etengunerik gabekoak izatea. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



*Eskubanda bikoitza eskaileraren erdian. Alboetako eskubanda, aldiz, bakarra da eta ez da ergonomikoa.*



*Eskubanda bikoitza eskaileraren bi alboetan.*



Eskubandak ez dira soilik eskailera eta arrapaletan jartzen: ibilbide maldatsuetan oso lagungarriak dira.



*Bermeoko kale honetan sokak jarri dira irisgarritasunaren lagungarri gisa.*



*Andoaingo kale honetan galtzadaren aldean jarri dira eskubandak.*



*Eskubandak luzatzeak asko laguntzen du irisgarritasun eta segurtasun baldintzetan.*



*Eskubandak araudiaren arabera luzatuta eta errematatuta, lotuneak sahiesteko.*

| **Elementua** | **Igogailuak eta eskailera/arrapala mekanikoak** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Sarbide-plataforma: Gutxienez 1,80m diametroko ontziratze plataforma egongo da.<br>— Sarbideko seinaleztapena: 1,50 x 1,50m-ko kontrastatutako arteka-zoladura seinaleztazailea sarbidearen norabidearekiko elkartzuta.<br>— Kabinaren neurriak:<br>_ Sarrera/irteerako norabide bakarra: 1,10 × 1,40m.<br>_ Sarrera/irteerako norabide desberdina: 1,50 × 1,80m.<br>— Desplazamendu horizontaleko ate automatikoak, pasatzeko zabalera librea dutenak: 1,00 m.<br>— Kabinako zoladuraren eta kanpoaldearen arteko berdinketa: = 0,00 cm.<br>— Kabinaren eta forjatuaren arteko tartea (GAP): 3,50 cm.<br>— Zoladura gogorra, ez irristagarria (lehorrean eta bustian), laua eta egonkorra.<br>— Harrapatzearen aurkako sentsorea atearen altuera osoa hartuko duena, atalasea pertsona batek okupatzen duen bitartean automatikoki itxi ez dadin.<br>— Sakagailuak:<br>_ Kanpo sakagailuak: 0,90-1,20 m-ko altueran, kontrastatuak, ondo argiztatuak, solairu bakoitzean alde berean eta beste paramentu batetik 40 cm-tara.<br>_ Kabinako sakagailuak: Botoiek gutxienez Ø = 2 cm izango dute, gainerako elementuekin kontrastatuta, atzerako argiztapenarekin (pultsatua), braillezko seinaleekin eta goi-erliebeko ikurrekin. Alarma-sakagailua kolorearen eta kokapenaren arabera bereiziko da (triangelu erliebeduna).<br>— Sekzio ergonomikoa duten barneko eskubandak, h = 0,90 ± 0,05 m kokatuak, eta paramentutik 4cm bereizita.<br>— Sarrerako atearen aurrean dagoen paramentu guztia hartzen duen ispilua. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Igogailuak eta hauetara sarbidea ematen duten pasarelak nahitaezko pasagune bilakatzen direnez, genero-ikuspegitik puntu sentiberak dira. Hori dela eta, ezinbestekoa da segurtasun-pertzepzioa kontuan hartzea: Igogailuaren kokapena erabakitzerakoan, ikusgarritasun-baldintzak kontuan hartzea gomendatzen da eta berezko zaintza egokia duten kokapenak lehenetsiko dira. Arrazoi berdinagatik, igogailuaren eta bere ingurunearen argiztapena zaintzea gomendatzen da.<br>— Igogailuaren ondoan eskailera bat ezartzea: Ibilbide alternatiboa eskaintzen du, segurtasun pertzepzioagatik zein matxura kasuan, garrantzitsua izan daitekeena.<br>— Igogailuaren segurtasun integrala bermatzea: Igogailuaren kabina gardena, argiztatua eta espazio publikotik ikusgarria, erabiltzaileen segurtasun-pertzepzioa areagotzeko. Era berean, igogailura doazen ibilbideak ere ikusgaiak, argiztatuak eta seguruak ere izango dira, gune itsurik gabekoak.<br>— Igogailuaren ezarpena lehenetsiko da, arrapala edo eskailera mekanikoaren aurrean, igogailuak pertsona guztien irisgarritasuna bermatzen baitu.<br>— Igogailua ezarri arren, inguruko ibilbideen irisgarritasuna areagotzeko neurri aringarriak ezarriko dira.<br>— Sarbide babestua: Sarbidean estalki bat edo beste babes-eremu bat jartzea gomendatzen da, itxaronaldian eguzkitik, euritik eta haizetik babesteko. |

| | |
|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |
| **Irudiak** | <br>*Hiri-igogailu batek bete beharreko irisgarritasun baldintzak.* |
| | *Igogailutik eta igogailura ikusgaitasuna zaindu da Hernaniko igogailu honetan: azalera gardenak erabiltzeaz gain, baranda ez da itsua.*<br><br>*Irudia: Vaumm. [https://www.vaumm.com/project/ascensor-lbb_u/](https://www.vaumm.com/project/ascensor-lbb_u/)*  |





*Igogailuak nahitaezko pasabideak dira, segurtasun-pertzepzioaren ikuspegitik puntu kritikoak bilakatzen direlarik. Honek ikusgarritasuna kontu handiz zaintzea eskatzen du (ikustea eta ikusia izatea), bai eta ibilbide alternatiboak eskaintzea ere.*





*Ikusgaitasuna areagotzeak segurtasun pertzepzioa hobetzen du, kanpotik barrura zein barrutik kanpora.*

| **Elementua** | **Hirigintza taktikoa.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — Ez dago hirigintza taktikoaren inguruko araudirik. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Hirigintza taktikoa sortzen da hiriko premiazko beharrei erantzun azkarra eta kostu txikikoa emateko, atzerako buelta ahalbidetzen duena, bide publikoan margoketa eta hiri-altzari edo elementu desberdinak jarriz.<br>— Ez dago hirigintza taktikoaren inguruko araudirik: "kontzeptu-ate" bat da, hiri-plangintzaren egungo eskubidea birpentsatzeko bideak irekitzen dituena. Izena ez dago espainiar araudi urbanistikoan definituta, baina soziologia, arkitektura eta diseinu bezalako diziplinak uztartzen ditu, eta lehendik dauden kontzeptuekin lotzen da, hala nola irisgarritasuna edo berrikuntza soziala.<br>— **Behin-behineko erabileraren eta hiri-plangintzaren arteko desberdintasun edo kontraesanak.** Hirigintza taktikoaren funtsa bere iragankortasunean datza, eta horrek maiz talka egiten du hiri-plangintzaren izaera finko eta epe luzekoarekin. Plangintzak arau finkoak ezartzen dituen bitartean, hirigintza taktikoak aldakortasuna bilatzen du, baita plangintzaren kontraesanean dauden erabilerei behin-behineko baimena emanez ere. Jurisprudentziak, oro har, onartzen du aldi baterako erabilerak baimendu daitezkeela, baldin eta egungo kalterik eragiten ez badute eta proiektatutako plangintza zailtzen ez badute.<br>— **Gai publikoen eskubidean aldi bateko kontuen txertaketa.** Iragankorra den hori gai publikoen eskubidean txertatzea arazo juridikoa da. Hirigintza taktikoak bide publikoaren erabilera arrazionalizatzea du helburu, eta tresna bigun gisa funtzionatzen du. Horrek pentsarazten du beharrezkoa dela irizpideak eta tresna juridiko berriak garatzea bide publikoa nola erabiltzen den ebaluatzeko eta hirigintza-politiketan malgutasun handiagoa izateko. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | Hirigintza taktikoa kostu baxuko eta inpaktu handiko behin-behineko interbentzioetan oinarritzen da. Bereziki erabilgarria izan daiteke esperimentaziorako, behin betiko plan edo proiektu bat gauzatu aurretik transformazio-gaitasuna probatu eta baloratzeko, Era berean, aurrekontu txikiko jardueretarako ere erabilgarria da, arazo puntualei erantzun azkarra emateko.<br><br>Hirigintza taktikoko jardueretan hurrengo irizpideak aplikatzea gomendatzen da:<br>— Irisgarritasun baldintza eskasak dituzten eremuetan aplikatzea: Oinezkoentzako baldintza hobeak modu errazean eta eraginkorrean bermatzeko.<br>— Ibilbide irisgarriak osatu: esku-hartze taktikoek ibilbide jarraitu, seguru eta erabilgarriak osatzera bideratu behar dute, ez elementu isolatuetara.<br>— Irisgarritasun unibertsala sustatzea: Pertsona guztientzako erabilgarriak diren interbentzioak diseinatzea, adina, gaitasuna edo egoera ekonomikoa kontuan hartu gabe.<br>— Asfaltoaren gaindimentsionamenduko lekuetan aplikatzea gomendagarria izan daiteke, espazio publikoa oinezkoek berreskuratzea eta elkargune seguruak sortzeko.<br>— Ekipamendu publikoen sarbideetan espazio publiko berriak sortzeko lan-tresna gisa gomendatzen da, elkargune eta jolasgune puntu berriak sortuz.<br>— Aurrekontua muga denean, oinezkotze-prozesua gauzatzeko tresna interegarria izan |

| | | |
|---|---|---|
| | daiteke hirigintza taktikoa.<br>— Iragankortasuna eta kalitatea uztartu: Hirigintza taktikoaren elementu guztiak, nahiz eta aldi baterakoak izan, kalitatezko materialez egin, eta egiturazko segurtasuna eta erabiltzaileen irisgarritasuna bermatu.<br>— Eserleku eta atseden-gune inklusiboak: Sortutako atseden-guneetan eserleku irisgarriak jarri (bizkarralde eta beso-euskarriekin), eta gurpil-aulkiak edota mugikortasun-laguntzak dituztenentzako espazio erreserbatuak gorde.<br>— Espazioen irakurgarritasuna hobetu: seinaleztapena, kolore-kontrastea eta orientazioa indartu, batez ere ikusmen- edo ulermen-zailtasunak dituzten pertsonentzat.<br>— Segurtasuna eta zaintza kontuan hartu: espazioek segurtasun-pertzepzio positiboa eta ikuspen ona bermatu behar dute.<br>— Ebaluazio partekatuak egin: esperientziaren emaitzak jaso, partekatu eta dokumentatu, ikaskuntza kolektiboa eta etorkizuneko plangintzaren hobekuntza sustatzeko. | |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | <br> | **¡Actuar y transformar! Urbanismo táctico para mejorar la salud en el entorno local.**<br>Ministerio de Sanidad y Federación Española de Municipios y Provincias. (2025).<br>https://www.aue.gob.es/recursos_aue/noticias/244-sanidad-guiaurbanismotacticosalud_compressed.pdf |
| | <br> | **Urbanismo táctico 2. Acción a Corto Plazo \|\| Cambio a Largo Plazo.**<br>Mike Lyndon, eta beste batzuk.<br>https://issuu.com/streetplanscollaborative/docs/urbanismo_tactico_2_digital_edition |

**Irudiak**



*Oinezkoentzat espazioak irabazteko aukera erraza eta azkarra izan daiteke hirigintza taktikoa.*



*Oinezkoentzako ibilbideak adierazteak ibilgailuen lehentasuna murrizten dute, oinezkoen segurtasuna handituz.*



*Bartzelonako Sant Antoni-ko superretxadiko irudi bat: asfaltatutako eremua oinezkoentzat egokitu da hiri-altzari, landare eta pintura erabiliz.*




*Hondarribin, Talaia Alai proiektuaren bitartez, ikastetxeen inguruan trafikoa baretzeko ekimenak egin dira, hirigintza taktikoa erabilita.*

| **Elementua** | **Seinaleztapen- eta informazio-elementuak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | Pertsonen irisgarritasun eta autonomiarako garrantzitsua izango da espazio publikoan modu estrategikoan kokatutako seinaleztapen- eta informazio-elementuak aurreikustea, bereziki ibilbide nagusietan, konplexuetan eta irisgarritasun-bide alternatiboak behar diren eremuetan.<br>— Kokapen estrategikoa: Elementuak aurrez ikusteko moduan eta puntu irisgarrietan kokatuko dira, erabiltzaile guztientzat ikusgarri eta erabilgarri izan daitezen.<br>— Oinezko ibilbide irisgarrietara konektatuta baina hauetatik kanpo kokatuko da.<br>— Elementu manipulagarrien altuera 1,00-1,20 m artean kokatuko dira, erabilera erosoa eta irisgarria bermatzeko.<br>— Pantailaren altuera 1,00-1,40 m artekoa izango da, 15-30°-ko inklinazioarekin.<br>— Testuek eta sinboloek atzealdearekin kontraste kromatikoa izango dute.<br>— Ukimen-informazioa eta Braille hizkuntzakoa erabiliko dira, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonei zuzenduta. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Informazio-puntuak kokatzeko kokapen estrategikoak:<br>_ Espazio eta eraikin publikoen sarbideetan, hauen intereseko oinarrizko datuak modu argian adieraziz.<br>_ Irisgarritasun gabeziak dituzten ibilbide hasieran, ibilbide irisgarri alternatiboa adierazteko.<br>_ Ibilbide alternatibo edo maldatsuetan: arrapala/igogailu/eskailera elkartzen diren tokietan.<br>_ Garraio publikoaren inguruan: Geltoki, geraleku eta intermodalitate guneetan.<br>_ Informazio-bulego edo eraikin publikoetako sarbideetan.<br>_ Arrisku edo segurtasun bereziko guneetan: obra-guneak, bide estuak edo aldi baterako baldintzatuak dauden ibilbidea.<br>— Ulerketa errazeko informazioa: Hizkuntza argia, ikur unibertsalak eta kontraste handiko koloreak erabiltzea, ikusmen-zailtasunak edo zailtasun kognitiboak dituzten pertsonentzako ulermena errazteko.<br>— Altuera irisgarria bermatzea: Gurpil-aulkietan dauden pertsonek, haurrek eta adinekoek erabiltzeko modukoa izatea. |

| | |
|---|---|
| **Gomendatutako dokumetazioa** |  **Atención cognitiva urbana.**<br>Desenreda Afanias. (2023).<br>https://26931772.fs1.hubspotusercontent-eu1.net/hubfs/26931772/Accesibilidad%20cognitiva%20Urbana.pdf<br>Lectura fácil. |
| **Irudiak** |  <br>*Udalerri batek informazio seinale mota asko izan ditzake. Hauen diseinuan irisgarritasun fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa kontuan hartzea ezinbestekoa da.* |
| | <br>*Antolaketa espazial nahasia duten auzoetan pertsona askorentzat lagungarria izan daiteke seinaleztapena jartzea puntu garrantzitsuenetan.* |




*Mapa haptikoen erabilera gomendagarria da zenbait eremutan.*




*Seinaleztepena diseinatzerakoan kontuan hartuko da errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko hizkera erabiltzea: “elbarritua” edo “minusválido” hitzak ez dira onargarriak, gaur egun.*







*Eraikinen seinaleztapenean desgaitasun ezberdinak kontuan hartzen dira, sentsorialak eta kognitiboak barne.*




*Euskotrenek Navilens sistema ezarri du zenbait geltokitan, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonek garraio publikoa modu autonomoan erabili ahal izateko. Telefono mugikorraren kamerak geltokietako funtsezko puntuetan dauden Navilens kodeak distantzia handira ezagutzen ditu, eta ahots-sistemaren bidez, erabiltzaileari garraioraino heltzeko jarraibideak zehatzak ematen dizkio.*

| **Elementua** | **Garbiketa eta mantentze-lanak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Garbiketa eta mantentze-lanak ezinbestekoak dira, espazio publikoen zein hiri-elementuen erabilera segurua eta irisgarria bermatzeko.<br>— Baldintza hauek denboran zehar mantentzeko, eta irisgarritasun, segurtasun, autonomia eta ez-diskriminazioaren degradazioa saihesteko edo moteltzeko egingo dira. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Materialen eta akaberen hautaketa egokia: Mantentze erraza eta iraunkortasuna bermatuko duten materialak erabiltzea gomendatzen da, higadura, baldintza klimatikoak edo erabilera intentsiboak jasango dituztenak.<br>— Eremu pribatuetako mantentze-lanak: Herritarrek espazio publikoan eragina duten elementu pribatuak (landareria, itxitura edo bestelako elementuak) egoera onean mantenduko dituzte. Udaletxeak lan hauek egiteko ardura har dezake, beti ere, hauen gastua herritarrari egotziz.<br>— Udalaren mantentze-plana: Udalerriko espazio publikoen eta hiri-elementuen mantentze egokia bermatzeko, aldizkako mantentze-plan bat egitea gomendatzen da, urteko aurrekontuan integratuta eta sistematikoki gauzatzeko.<br>— Egoera desegokien konponketa azkarra: Espazio publikoan gertatzen diren gabeziak (baldosa solteak, bideko zuloak, hondatutako barandak edo farolak…) lehen bait lehen konpontzea gomendatzen da, arriskuak saihesteko eta ingurunearen degradazioa ekiditeko. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



*Ibilbideak irisgarritasun eta segurtasun-baldintza onetan mantenduko dira.*



*Zuhaixkak ibilbidea inbaditu du, honen zabalera nabarmen murriztuz.*



*Zenbait zoladura irristakor bihur daitezke ez badira periodikoki garbitzen.*

| **Elementua** | **Behin-behineko babes- eta seinaleztapen-elementuak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Oinezko ibilbideak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA Erabilera-segurtasuna eta irisgarritasuna. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Arriskudun elementuak seinaleztatzea eta babestea: Erabilera publikoko espazioetan arriskua dakarten edo irisgarritasuna mugatzen duten behin-behineko elementuak (obrak, andamioak, zanjak, bestelako egitura-oinarriak) behar bezala seinaleztatu eta babestuko dira.<br>— Obrak eta aldamioak: Segurtasun fisikoa eta irisgarritasuna bermatzeko seinaleztatu eta babestu egingo dira.<br>— Hesiak eta babes-elementuak: Hesiak sendoak eta jarraiak izango dira, ertz zorrotzik gabekoak eta erorketak saihesteko diseinatuak. Hesiak obretatik gutxienez 50 cm-ra kokatuko dira, eta ez da onartuko kable, soka edo sareekin ordezkatzea.<br>— Materialak eta ibilbideak: Obrako materialak oinezko ibilbideetatik kanpo mantenduko dira, eta ibilbideak libre eta irisgai egongo dira, gutxieneko pasabide librearen zabalera 1,50 m izanik. Espaloia estuagaoa bada, espaloi bera erabiliko da. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Kolore kontrastea bermatzea: Hesiak, seinaleak eta bestelako babes-elementuak kolore kontrastatuekin adieraztea gomendatzen da, ikusmen murriztua duten pertsonek modu errazean identifika ditzaten.<br>— Argiztapena: Hesiak eta babes-elementuak argiztatzea gomendatzen da, batez ere ilunpean edo ikusgarritasun murriztua dagoenean.<br>— Ibilbide alternatiboak: Obrak oinezkoen ohiko ibilbidea oztopatzen badu, ibilbide irisgarri alternatiboak aurreikusiko eta seinaleztatuko dira. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  **Condiciones Básicas de Accesibilidad en Espacios Públicos Urbanizados. Fichas Técnicas de Accesibilidad Universal.** Sinpromi. Sociedad Insular para la Promoción de las Personas con Discapacidad del Cabildo de Tenerife. https://crokis-sites.fra1.cdn.digitaloceanspaces.com/sinpromi/wp-content/uploads/2024/11/15131859/2023-OBRAS-EN-LA-VIA-PUBLICA-2.pdf |

**Irudiak**




*Obrek oinezko ibilbidea oztopatzen dute.*




*Espazio publiko urbanizatuetan egiten diren obra eta esku-hartzeek oinezkoentzako ibilbideen irisgarritasun-baldintza orokorrak bermatu beharko dituzte.*



| **Elementua** | **Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Sarbide irisgarria bermatzea: Oinezko ibilbideekin konexio zuzen eta irisgarria izango dute, ibilbide irisgarriaren jarraitasuna eten gabe.<br>— Altuera-librea mantentzea: 2,20 m-ko altuera librea ziurtatu, lorategi edo landaredi-eremuetan izan ezik.<br>— Atsedenguneen maiztasuna: Atsedenleku irisgarriak gehienez 50 m-ko distantziara jartzea.<br>— Desnibeletarako babes-neurriak: 40 cm baino gehiagoko desnibeletan erorketa arriskua saihesteko babes-elementuak ezartzea. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Atseden-guneak ibilbide nagusietan kokatzea: Ibilbide nagusietan atsedenlekuak ezartzea gomendatzen da, erabiltzaileen autonomia errazteko.<br>— Zoladura seguruak eta irakurgarriak bermatzea: Atsedenlekuan gainazal egonkorrak, irristagaitzak eta kontrastatuak izatea, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen orientazioa eta segurtasuna bermatzeko.<br>— Ekipamendu egokia: Hiri-altzari ergonomikoak eta anitzak jartzea.<br>— Funtzionaltasuna bermatzea: atseden-guneek ez dute oztopatuko oinezkoen fluxua edo zebra-bideen pasabidea.<br>— Mantentze-lan erregularrak: Atsedenlekuak seguru eta eraginkor mantentzeko, aldizka mantentzea gomendatzen da.<br>— Argiztapen segurua eta funtzionala ezartzea: Espazio horietan erabilera egokia bermatzeko eta erabiltzaileen segurtasun-pertzepzioa areagotzeko, argiztapen nahikoa eta estrategikoki kokatua ezarri beharko litzateke. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  **Parques, jardines y zonas verdes: ideas fuerza en accesibilidad universal.** J. A. Juncá (2014). https://www.parquesinfantilesinclusivos.es/wp-content/uploads/2021/02/Parques-Jardines-AEPJP-Accesibilidad.pdf |

| | | |
|---|---|---|
| |  | **Guía técnica de accesibilidad para la Red de Caminos Naturales.**<br>PREDIF - Plataforma Representativa Estatal de Personas con Discapacidad Física (2018).<br>http://riberdis.cedid.es/bitstream/handle/11181/6614/Gu%c3%ada_t%c3%a9cnica_y_de_dise%c3%b1o_sobre_accesibilidad_en_v%c3%adas_verdes.pdf?sequence=1&rd=0031993635707576 |
| |  | **Guía técnica de accesibilidad para la Red de Caminos Naturales.**<br>ONCE, Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación (2020).<br>https://www.mapa.gob.es/dam/mapa/contenido/desarrollo-rural/temas/caminos-naturales/publicaciones/accesibilidad/guia_caminos_naturales_acc.pdf |
| |  | **Guía Técnica de Accesibilidad en Espacios Naturales.**<br>ONCE, Jesús Hernández Galán, Organismo Autónomo Parques Nacionales (2017).<br>https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2020/10/Guia-Tecnica-de-accesibilidad-en-Espacios-Naturales.pdf |
| |  | **Guía técnica de accesibilidad para la Red de Caminos Naturales.**<br>ONCE, Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación (2020).<br>https://www.mapa.gob.es/dam/mapa/contenido/desarrollo-rural/temas/caminos-naturales/publicaciones/accesibilidad/guia_caminos_naturales_acc.pdf |



**Guía Técnica de Accesibilidad en Espacios Naturales.**
ONCE, Jesús Hernández Galán, Organismo Autónomo Parques Nacionales (2017).
https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2020/10/Guia-Tecnica-de-accesibilidad-en-Espacios-Naturales.pdf




**Espacios naturales accesibles. Criterios básicos para diseñar un “Camino Sin Límites”.**
La Ciudad Accesible (2018).
http://riberdis.cedid.es/bitstream/handle/11181/6869/Espacios_naturales_accesibles_Camino_sin_l%c3%admites.pdf




**Manual para Parques Naturales Inclusivos. Aproximación inicial.**
Federación Española de Deportes de Montaña y Escalada, Área de Montañismo Inclusivo y Adaptado, F. J. Bueno et al. (2023).
https://fedme.es/wp-content/uploads/2024/05/MANUAL_DE_PARQUES_NATURALES_INCLUSIVOS.pdf




**Manual de parques accesibles.**
UMA, Ayuntamiento de Gijón (2008).
https://sid-inico.usal.es/idocs/F8/FDO20780/manual_parques_accesibles.pdf

| | | |
|---|---|---|
| |   | **Parques infantiles accesibles.** Jorge Palomero Ferrer (2018). https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2020/05/Parques-Infantiles-Accesibles-1.pdf |
| |   | **Estudio sobre parques infantiles inclusivos.** CERMI Madrid (2019). https://www.parquesinfantilesinclusivos.es/wp-content/uploads/2020/04/Parques-inclusivos-CERMI.pdf |
| |  | **Recomanacions per a unes àrees de joc accessibles i inclusives.** Ajuntament de Barcelona, Xarxa d'Accessibilitat i Vida Independent de l'Acord Ciutadà per a una Barcelona Inclusiva (2019). https://media-edg.barcelona.cat/wp-content/uploads/2020/02/21092633/recomanacions_accessibilitat_arees_joc_infantil.pdf |
| |  | **Manual de construcción y equipamiento de parques infantiles de integración.** Fundación Lukas (2015). https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2024/08/Manual-construccion-y-equipamiento-de-Parques-Infantiles-de-integracion.pdf |




**Un parque muy normal. Diseño de un parque infantil adaptado.**
Cecilia Díez de Frutos (2024).
https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/70762/TFG-I-3151.pdf




**Propuestas para crear espacios de juego accesibles.**
Ecom - Noelia Garberi (2024).
https://www.ecom.cat/sites/default/files/images/cast_espais-de-joc_lf_ecom-web_compressed.pdf

Lectura fácil.




**Recomendaciones de accesibilidad para la utilización de pavimentos tacto visuales en sectores de juegos.**
Dirección General de Accesibilidad del Área de Obras y Equipamientos del Ayuntamiento de Madrid (2025).
https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/OfAccesibilidad/EI/MesaAccesibilidad/Transversalidad/Ficheros2025/RecomendacionesPavimentosTactoVisualesSectoresJuegos.pdf




**Áreas de juego, áreas de vida: Seguridad. Preguntas y respuestas.**
Proludic (2020).
https://www.parquesinfantilesinclusivos.es/wp-content/uploads/2020/04/Normativa-Seguridad-PRODULIC.pdf




**Eskola adineko kirol inklusiborako gida 2022**
Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (2022).
https://www.gkef-fgda.org/wp-content/uploads/2022/11/Kirol_inklusiboa-2022-baja.pdf

| **Elementua** | **Jolas-elementuak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Jolas-elementu irisgarriak bermatzea: Jolasgune bakoitzean, bost jolas-elementuetatik bat irisgarria izango da. Bat baino gehiago badaude, irisgarritasun irizpide ezberdinei erantzun beharko die.<br>— Oinezko ibilbide irisgarriarekin lotzea: Jolas-elementuak irisgarriak izateaz gain, bertara iristeko ibilbideak ere irisgarriak izango dira.<br>— Elementuen eta inguruaren artean kontraste kromatikoak eta testurazkoak ezarriko dira, espazioaren orientazioa eta pertzepzioa errazteko.<br>— Transferentzia-eremua: Elementu irisgarrien albo batean 1,50 m-ko diametroko espazio libre bat aurreikusiko da, oinezko ibilbidetik kanpo.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Jolas-elementu irisgarriaren kokapenak inklusioa sustatzea: Jolas-elementu irisgarriak jolasguneen puntu estrategiko eta ikusgarrietan kokatzea gomendatzen da, inguruko beste elementuekin konektatuta, haur guztien parte-hartzea ahalbidetzeko eta baztertze-arriskua saihesteko.<br>— Jolasguneak atsedengune eta babesguneekin osatzea: Eserlekuak, iturriak eta itzalguneak txertatzea gomendatzen da.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



*Zabu inklusiboak gero eta ohikoagoak dira, baina egoera oso espezifiko bati soilik erantzuten diote.*



*Jolas-elementuak ezartzerakoan aniztasuna kontuan hartzea gomendatzen da, jolaserako aukerak zabalduz.*





*Jolaguneetan irisgarritasun irizpideak hasieratik txertatzeak inklusioan lagun dezake, irisgarritasuna elementu zehatz edo/eta ortopedikoetara mugatzea ekidinez. Adibide gisa, "El Laurel" jolas-eremua.*

| **Elementua** | **Hiri-altzariak, oro har.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Hiri-altzari eta ekipamenduek oinezko ibilbide irisgarria errespetatzea: Elementuek ez dute inola ere oinezkoen ibilbide irisgarria oztopatuko.<br>— Hiri-ekipamendu irisgarrien diseinu eta kokapen estrategikoa: Bost elementuetatik bat behintzat irisgarria izango da. Gune guztiak irisgarriak izan daitezen, ezinbestekoa da elementu irisgarrien banaketa homogeneoa.<br>— Jolas- eta ariketa-elementuetan, bost elementuetatik bat gutxienez irisgarria izango da.<br>— 2,20 m-tik beherako altueran kokatutako edozein elementu finko edo mugikor lurreraino luzatuko da eta ez du irtengunerik izango.<br>— Espaloiaren kanpoko zerrendaren ondoan lerrokatuko da, zintarriaren eta galtzadaren arteko mugatik gutxienez 40 cm-ra.<br>— Beira-gainazal edo gainazal gardenak: Bi seinaletapen banda ezarriko dira, 20 cm-ko zabalera, 0,85-1,10 m eta 1,50-1,70 m altueretan, atzekaldearekin kontrastatua, ikusmen murriztua duten pertsonek elementuak modu errazean identifika ditzaten. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Ibilbide naturaletan oztoporik ez sortzea: Elementuak ibilbide irisgarritik kanpo egon arren, komeni da oinezkoentzako ibilbide naturala libre uztea, trabak saihesteko eta elementuen erabilgarritasunari eusteko.<br>— Ibilbidearekiko lotura: Elementuek irisgarriak izateaz gain, oinezkoentzako ibilbide irisgarriekin lotuta egongo dira.<br>— Jarraitutasuna eta koherentzia bermatzea: Hiri-altzariak eta ekipamenduak modu ordenatu eta koherentean kokatuko dira, ibilbidea eten ez dadin.<br>— Irisgarritasun-baldintzak kontuan hartzea: Hiri-altzariak hautatzerakoan, erabiltzaileen baldintza fisikoak, adinak eta gaitasunak kontuan hartzea gomendatzen da, erabilera desberdinetara egokitutako eremuak sortzeko.<br>— Ikuspena eta orientazioa: Elementuak behar bezala argiztatutako eremuetan kokatzea eta intereseko eremuetara orientatzea gomendatzen da.<br>— Atsedenleku osoak: Atsedenleku osoak sortzea gomendatzen da, zuhaitzak eta landareak bezalako elementu naturalak barne, iturriez edo beste elementu batzuez gain.<br>— Saihestu puntu kritikoetako pilaketak: Bankuak, jardinerak edo seinaleak ez dira metatuko bidegurutze edo sarbideetan.<br>— Hiri-altzarien erabilera-eremua: Hiri-altzarien elementu bakoitzak gutxieneko erabilera-eremua du, eta libre eta oinezkoen ibilbidetik kanpo mantendu beharko da. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” eta “Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak” ataletako gomendatutako dokumentazioa. |

| | |
|---|---|
| **Irudiak** |  *Irisgarritasuna hiri-altzariak eta hauen kokapena erabakitzerakoan hartu behar da kontuan.* |
| | Hiri-altzariak aukeratatzerakoan irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak aplikatzea gomendatzen da.  |

| **Elementua** | **Eserlekuak eta mahaiak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | Bankuak:<br>— Banku irisgarriak bermatzea: Bost bankutik bat irisgarria izango da. Banku irisgarrien arteko distantzia ez da 50 m baino gehiago izango. Irisgarriak ez diren bankuak erabil daitezke, beti ere modu osagarrian.<br>— Eserleku irisgarrien neurriak: Bankuen altuera eta sakonera 40-45 cm izango da.<br>— Eserleku irisgarrien osagarriak: Bizkarraldea eta beso-euskarriak izango dituzte; bizkarraldearen altuera 45 cm izango da, eta beso-euskarriaren eserlekuarekiko altuera, 20-25 cm-koa. Bizkarraldearen inklinazioa, gehienez 105°.<br>— Transferentzia-eremua: Espazio librea aurrekaldean 60 cm luzera osoan, oinezko ibilbide irisgarritik kanpo. Espazio librea alde batean gutxienez 1,50 m-ko diametroa izango du alde batean, beti oinezko ibilbide irisgarritik kanpo.<br>Mahaiak:<br>— Dotazioa: Gutxienez unitate bat multzo bakoitzeko, eta, nolanahi ere, unitate bat bost mahai edo frakzio bakoitzeko.<br>— Lan-planoak 80 cm-ko zabalera izango du gutxienez eta gehienez 85 cm-ko altueran egongo da.<br>— Gutxienez alde batean, 70 × 80 × 50 cm-tik beherako espazio libre bat izango du (altuera × zabalera × 50 cm-koa), bai eta oztoporik gabeko espazio bat edo hurbilketa-eremu bat ere, non gutxieneko 1,50 m-ko diametroko zirkulu bat inskriba daitekeen; zirkulu hori ez da inola ere bat etorriko oinezkoen ibilbide irisgarriarekin, eta haren kokapenak bertatik sartzeko aukera emango du.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Hainbat erabileretarako diseinua: Bankuak eta mahaiak taldeka nahiz banaka erabiltzeko moduan jartzea.<br>— Kokapen estrategikoa: Oinezkoen ibilbide nagusiei lotuta egongo dira.<br>— Irisgarritasun-baldintzak kontuan hartzea: Bankuak eta mahaiak hautatzerakoan, erabiltzaileen baldintza fisikoak, adinak eta gaitasunak kontuan hartzea gomendatzen da, erabilera desberdinetara egokitutako eremuak sortzeko.<br>— Ingurumenaren eta meteorologiaren babesa: Eremu batzuk itzalarekin, eguzkiarekin, haizearekin eta euriaren aurkako babesarekin osatzea.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, oro har” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak”, “Hiri-altzariak, oro har” eta “Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak” ataletako gomendatutako dokumentazioa. |

| **Irudiak** |  *Eserlekuen erabilera eremuak: bere aurrean, erosotasuna bermatzeko eta alboan, gurpildun aulkiarentzat edo haur-orgatxoarentzat lekua utziz.* |
| --- | --- |
| |  *Araudiak ezartzen duenez, gutxienez alde batean espazio librea izango du, 1,50 m-ko diametrokoa.*  *Katalogoetan "eserleku inklusibo" izenpean agertu berri den modelo hauek saihestea gomendatzen da, inklusioa beharrean, erabilera modu bakarra sustatzen baitu.* |



*Mahaientzat ere araudiak hurbilketa-eremua eta mahaian espazio libre baten baldintzak ezartzen ditu. Ikus Usurbilgo adibide hau.*



*Errazago eseri eta jeikitzeko, eserleku irisgarrien bi albo banatan heldulekuak jartzea eskatzen du araudiak. Horretaz gain, 40-45cm-tako altuera ezartzen du araudiak: normalena da adinekoek 45cm edo gehiagoko altuera eskatzea.*





*Herrigunean ezarritako eserleku eta mahai guztiek ez dute zertan irisgarriak izan behar: aniztasuna txertatzea garrantzitsua da espazioen erabilera ere aberatsa eta anitza izan dadin. Hiri-altzari multzo bakoitzean irisgarria den eserlekuren bat jartzea nahikoa da araudia betetzeko, baina testuingurua aztertzea ezinbestekoa da erabaki hori hartzeko. Hernani eta Usurbil.*

| **Elementua** | **Iturriak.** |
| --- | --- |
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Irisgarritasuna eta ergonomia maximizatzea: Elementuen altuerak eta mekanismoak egokituko dira, haurrek, adinekoek eta dibertsitate funtzionala duten pertsonek modu eroso eta seguruan erabil ditzaten.<br>— Ingurunearen segurtasuna bermatzea: Zoladura irristagaitzak erabiliko dira eta diseinuak putzuak edo ur-bilketak saihestuko ditu, erorketak eta arriskuak ekiditeko.<br>— Mekanismo erabilerrazak ezartzea: Irekidura errazeko sistemak eta sakagailu ergonomikoak jarriko dira, erabiltzaile guztientzako egokituta.<br>— Higiene eta funtzionamendu egokia bermatzea: Aldizka azterketak eta mantentze-lanak egingo dira, adibidez, zikinkeria, tanta-jarioak edo ur-presio eskaseko arazoak saihesteko.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Eredu irisgarriak lehenestea: Haurrek, adinekoek eta dibertsitate funtzionala duten pertsonek erabili ahal izango dituzten diseinu eta ereduak aukeratzea gomendatzen da.<br>— Ingurunearen segurtasuna bermatzea: Erabilera-eremuan putzuak sortzea sahiestuko duen diseinua lehenetsiko da, espazioa beti lehor eta seguru mantenduz.<br>— Transferentzia-eremua: Iturriaren aurrean gutxienez 1,50 m-ko diametroko espazio librea aurreikustea gomendatzen da, ibilbide irisgarritik kanpo, gurpildun-aulki edo bestelako laguntza-aparatuak erabiltzen dituzten pertsonen hurbilketa eta maniobra errazteko.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” eta “Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak” ataletako gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



*Legorreta, Usurbil: altura desberdinetan jarri dira txorrotak. Iturriaren planotik ateratzen diren elementuek oinezkoen ibilbide irisgarria ez inbaditzea zaindu behar da.*



*Txorrota bertikalek ura edateaz gain botila betetzea ahabidetzen dute.*

| **Elementua** | **Mutiloiak eta antzekoak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | Mutiloiak espazio publikoan muga fisikoak ezartzeko erabiltzen diren elementuak dira, ibilbideak antolatzeko eta segurtasuna handitzeko. Batez ere, oinezkoen eta ibilgailuen banaketa bermatzeko erabili ohi dira.<br>Mutiloien ezaugarriak:<br>— Altuera egokia: Elementuak 75-100 cm bitarteko altueran kokatuko dira, estropezu egitea eragozteko eta erabilera segurua bermatzeko.<br>— Sekzioa eta sendotasuna: Elementuek gutxienez 10 cm-ko diametroa izango dute, erresistentzia eta segurtasuna bermatzeko.<br>— Forma biribildua eta ertz leunak erabiliko dira.<br>— Kolore kontrastatua, altuera osoan edo goiko aldean soilik, errazago detektatzeko eta identifikatzeko.<br>— Kokapen segurua, lerrokatuta, oinezkoentzako ibilbide irisgarrian oztoporik sortu gabe.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Mutiloi kopuruaren kontrola: Gehiegizko multzoak saihestea gomendatzen da; elkarren arteko distantzia eskasa bada, irisgarritasun oztopoak sor ditzakete.<br>— Kokapen estrategikoa lehenestea: Elementuak puntu kritikoetan jartzea gomendatzen da, oinezkoen babes fisikoa bermatuz eta ibilbidearen fluxua oztopatu gabe.<br>— Oinezkoen espazioak babesteko mutiloiak erabiltzea: Ibilgailuek espaloian behar ez bezala aparkatzea saihesteko mutiloiak edo antzeko elementuak erabiltzea gomendatzen da, bereziki langile eta baliabide mugatuak dauden udalerrietan.<br>— Mutiloien alternatibak aztertzea: Funtzio bera bete dezaketen beste hiri-altzari edo elementuak kokatzea gomendatzen da, funtzio gehigarriak eman ditzaketenak: jardinerak, bankuak…<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, oro har” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” eta “Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak” ataletako gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**













*Bolardo baxuegiek edo ingurunearekin behar bezala kontrastatu gabeek oinezkoek estropezu egiteko arriskua areagotzen dute.*







*Elementu hauek mutiloien lana egiten dute, baina erraz detektatu daitezke, arriskuak ekidinez.*

| **Elementua** | **Zakarrontziak, postontziak eta antzekoak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Ahoaren altuera: Edozein erabiltzaileren erabilera eroso eta segurua ahalbidetzeko, ahoaren altuera 0,70-0,90 m bitartean jarriko da.<br>— Kokapena eta irisgarritasuna optimizatea: Elementu guztiak ibilbide irisgarrietatik erabilgarri egongo dira, ibilbidearen jarraitasuna errespetatuz.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Zakarrontzi kopurua egokitzea: Etengabeko erabilerarako eta kaleak garbi mantentzeko, erabilerari egokitutako kopurua egokitzea gomendatzen da.<br>— Puntu estrategikoetan kokatzea: Jende gutxi ibiltzen den pasealeku edo ibilbidetan ere gomendagarria da, gutxienez sarreretako puntuetan, mantentze-lanak errazteko, oinezkoen autonomia sustatzeko eta erabilera egokia bultzatzeko.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” eta “Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak” ataletako gomendatutako dokumentazioa. |
| **Irudiak** | <br>*Zaborrontziaren perimetro osoa lurrerainokoa izan behar duela dio araudiak, makila erabiltzaileek detekta dezaten.* |



*Zaborrontzien ahoa altuera egokian dago eta perimetroa lurreraino luzatzen da, detektagarritasuna hobetuz.*



*Postontzi horiaren ahoa altuera desegokian dago.*

| **Elementua** | **Hiri-hondakinen edukiontziak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Erabilera-eremua bermatzea: Oinezko ibilbide irisgarriarekin konektatuta eta bertatik erabilgarriak direla ziurtatuko da.<br>— Ahoa irisgarria izatea 0,70-0,90m-ko altueran.<br>— Irekiera mekanismo irisgarria ezartzea: 0,70-1,10 m-ko altueran kokatuko da, esku bakarrarekin edo ukolondoarekin eta mugimendu sinpleekin erabiltzeko modukoa izango da.<br>— Indar-muga bermatzea: Ez da 25 N-tik gorako indarrik beharko mekanismoa aktibatzeko,<br>— Pedal bidezko mekanismoak mugatzea: Izatekotan, pedalak ez du 20 cm-tik gorako altuera izango.<br>— Transferentzia eremua: 120 x 80 cm-ko espazio librea bermatuko da, maniobra errazak ahalbidetzeko.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Kokapen irisgarria lehenestea: Edukiontziak ahal den neurrian espaloiaren mailan kokatzea gomendatzen da, desnibelik gabe. Galtzadan kokatuz gero, plataforma irisgarria sortzea gomendatzen da, edukiontziak espaloi-altuerara mailakatzeko.<br>— Hurbilketa eta segurtasuna optimizatzea: Oinezko ibilbideetatik hurbilketa ahalbidetzea eta edukiontzien ahoak oinezko ibilbidera orientatzea.<br>— Edukiontzien ahoen irisgarritasuna bermatzea: Edukiontzien ahoak altuera ezberdinetara egokitzea gomendatzen da, pertsona guztien irisgarritasuna ziurtatzeko (ikus argazkiak).<br>— Ikusgarritasuna eta erabilera erraztea: Edukiontziak kolore kontrastatuan ezartzea gomendatzen da, eta bakoitzari dagokion piktograma edo seinale grafikoa jartzea, hondakin mota modu argi eta irisgarrian adierazteko.<br><br>Ohar teknikoak:<br>— Hiri altzariak, orokorrean: ikus “Hiri-atzariak, orokorrean” fitxa. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

**Irudiak**



*Edukiontziek oinezko ibilbidea oztopatzen badute, plataforma baten bitartez aparkalekuaren eremua kokatu daitezke, oinezkoen eta edukiontzien erabiltzaileen irisgarritasuna bermatuz.*



Kokapenaz gain, edukiontzien irekiera mekanismoak eragin handia du bere erabileran.



*Gasteizko edukiontzi hauek aho gehigarria dute, 0,70-0,90 altueran.*



*Beira edukiontzi hauek ere aho gehigarria dute.*







*Soraluzeko eta Legorretako mini garbiguneak: ahoen altuera gehiegizkoa da.*

| **Elementua** | **Ostalaritza establezimenduetako terrazak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — D68/2000 Dekretua eta TMA/851/2021 Agindua: Ez dituzte zuzenean terrazak arautzen, baina irisgarritasunaren aplikazioan eragina dute: oinezko ibilbideei eta espazio publikoaren erabilerari buruzko baldintzak jasotzen ditu, eta horiek terrazetan ere beteko dira.<br>— Ostalaritza-establezimenduen eta antzekoen terrazen instalazioa arautzen duen udal-ordenantza, hala badagokio. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Oinezkoen ibilbide irisgarria bermatzea: Gutxienez 2,00m-ko zabalera eta 2,20m-ko altuera librea mantentzea, oztoporik gabe: toldo, karpa, argiztapen-elementuak edo antzekoak.<br>— Kokapen mugak errespetatzea: Terrazako elementuek ez dituzte oinezkoen ibilbideak edo/eta eraikinetako sarbideak inbadituko.<br>— Segurtasun-baldintzak betetzea: Terrazako elementuek ez dute ertz zorrotzik izango eta ez dute erorketa arriskurik sortuko.<br>— Saihestu egingo da tabernetako eta antzeko instalazioetako terrazetako edozein elementuk edo egoerak pertsonentzat eta, bereziki, ikusmen-desgaitasuna dutenentzat arriskurik sortzea. Olanak, eguzkitakoak eta antzeko elementu hegalkinak 2,20 m-ko altueran egongo dira gutxienez, eta paramentu bertikal gardenak seinaleztatuta egongo dira.<br>— Gainazal beiraztatu edo garden guztiek haien detekzioa bermatuko duten elementuak izango dituzte. Bi banda horizontal opakurekin seinaleztatuko dira, kolore bizikoak, beiraren atzekaldearekin kontrastatuak eta beiraztatutako gainazalaren zabalera osoa hartzen dutenak. Zerrendak 5 eta 10 cm arteko zabalera izango dute, eta lehenengoa 0,85 eta 1,10 m arteko altueran jartzeko moduan jarriko dira, eta bigarrena 1,50 eta 1,70 m bitartean. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Irisgarritasun unibertsala indartzea: “Lagundutako irisgarritasuna” (desgaitasuna duen pertsona eta bere laguntzailea elkarrekin joateko duten beharra) kontuan hartzea gomendatzen da, batez ere dimentsioak handituz.<br>— Prebentzio-printzipioa. Erabiltzaileek planuan aurreikusitakoa baino espazio gehiago hartzen dute askotan. Beraz, ibilbide edo gune kritikoetan (etxebizitzetako atarien ondoan, esaterako) mugak ezartzeko elementuak aurreikustea gomendatzen da. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Oinezko ibilbideak” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |

| **Irudiak** | <br>*Terrazak oinezko ibilbideetatik kanpo kokatuko dira, irudian bezala, adibidez.* |
|---|---|
| | <br>*Mahaiak portxean, Bermeo.* |



*Zenbait kasutan, alde zaharretarako irizpide desberdinak erabil daitezke.*



*Mahaiek hartzen duten espazioaz gain, toldoak hartzen duena kontuan hartu behar da: ibilbide irisgarria bermatzeko ez du 2,20m-tik beherako espazioa hartuko.*




*Baimenak ematerakoan, Udalak irisgarritasunari dagozkion gutxieneko dimentsioak zaintzeaz gain, erabiltzaileek planuan aurreikusitakoa baino espazio gehiago hartzen dutela kontuan izan beharko luke.*

| **Elementua** | **Komun publikoak.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Eraikin eta zerbitzu publikoak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA 9 Irisgarritasuna. Oinarrizko Dokumentu honen helburua da erabilera-segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak ezartzea. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Komun pubiko irisgarria bermatzea: Bakarra ezartzen bada irisgarria izango da. Multzoetan, 10 komunetik gutxienez 1 irisgarria izango da. Mugikortasun urriko pertsonek autonomoki erabiltzeko modukoa izango da, nolanahi ere.<br>— Ibilbide irisgarriarekin lotura: Komunak ibilbide irisgarriarekin lotuta egongo dira, hau inbaditu gabe.<br>— Ateen baldintzak:<br>_ Zabalera ≥ 90 cm<br>_ Zokalo babeslea ≥ 30cm<br>_ Ateak ez dira inoiz barrrurantz irekiko.<br>— Maniobra-eremuak eskaintzea: Gutxieneko espazio librearen diametroa:<br>_ Sarbideko ate aurrean: 1,80m.<br>_ Kabinan: 1,50m.<br>— Barruko gutxieneko altuera librea: 2,20m.<br>— Barruko kabinako elementuak:<br>_ Konketa: 80 cm-ko altueran, 70x80x50cm-tik espazio librearekin. Txorrota, aginte bakarrekoa edo automatikoa.<br>_ Ispiluaren beheko ertza 90 cm-ko gutxieneko altueran.<br>_ Komunontzia: 45 cm-ko altueran kokatuta, hormaren kanpoko ertza ≥ 70 cm-ko distantziara, alboko espazio librea ≥ 80 cm (gutxienez alde batean, bietan bada hobe), alboetako barrak bi alboetan (sarbidearen aldekoa, eraisgarria), barra-luzera 80-90 cm; barra eta komunaren arteko tartea 30-35cm.<br>_ Alarma-sistema: Lurretik 40 cm-ra instalatutako da, komunaren edozein puntutik erraz eragiteko modukoa.<br>_ Elementu osagarriak: Esekitoki eta antzekoak, 90-120 cm-ko altueran.<br>_ Erabilera errazeko ate-kisketa. Larrialdietan, kanpotik ireki ahal izango da. Argi eta soinu seinalea, automatikoki irekitzeko mekanismorako. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Pertsona guztien autonomia eta duintasuna bermatzeko hiri-espazioen funtsezko elementua da: adibidez, ezinbestekoa da gernuari eutsitzeko zailtasunak dituztenentzat. Espazio publikoaren parte izaten laguntzen duen ekipamendua da, bereziki mugikortasun murriztua duten pertsonak, adinekoak, haurrekin dauden familiak eta behar bereziak dituzten pertsonak erabili ahal izan dezaten diseinatu eta ekipatu beharko da, hauek espazio publikoaren parte izaten jarraitu dezaten ahalbidetuz.<br>— Komun irisgarri proportzioa handitzea: Ahal den heinean, aukera irisgarri gehiago eskeintzea gomendatzen da. Guztiz irisgarriak diren komunak gehitu ezin direnean, irisgarritasun irizpideak aplikatzea gomendatzen da, erabilgarritasun baldintzak hobetzeko. |

- Komun irisgarriaren dimentsioak handitzea: Barne-kabinako diametro librea 1,80 m-ra handitzea gomendatzen da, mugikortasun murriztuko pertsona eta laguntzaile batek modu erosoan maniobra egin eta modu erosoan erabiltzeko.
- Kokapen irisgarria eta hurbila: Komunak ibilbide nagusietatik gertu kokatzea gomendatzen da, ibilbidean desbideratzeak saihetsiz.
- Ingurumen-babesa ezartzea: Sarbidean estalki bat edo beste babes-eremu bat jartzea gomendatzen da, itxaronaldian eguzkitik, euritik eta haizetik babesteko.
- Seinale osagarriak ezartzea: Ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako ukipen- eta soinu-seinaleak gehituko dira, orientazioa eta erabilera errazteko.
- Barne-ekipamendua ezartzerakoan kontuan izatea desgaitasun guztiak (organikoak barne) eta zainketa-lanak (aldatzeko mahaia eta dutxa higienikoa, esaterako). Hauetaz gain, erabilera erosoa bermatzeko ezinbestekoak diren elementu osagarriak: esekitokia, apal edo azalera horizontala, eserlekua...
- Mantentze lan erregularrak egitea: Komunak maiz garbitzea eta bertako elementuak berrikustea, funtzionamendu eta higiene egokia bermatuz.
- Egokitzapen progresiboa sustatzea: Dauden komunak egokitzeko plan espezifiko bat egitea, esku-hartze progresiboen bidez irisgarritasuna bermatzeko.
- Informazioa oso garrantzitsua da, pertsona batzuen autonomia komun publiko bat inguruan izateak baldintzatzen baitu. Adibidez, Donostiako Udalak informazio hau turismo bulegoko webgunean jarri du:




- Herritarrentzat komun erabilgarrien kopurua areagotzeko jada herrigunean dauden komunei erabilera publikoa emateko aukerak aztertzea gomendatzen da. Horretarako, Udalak herriko establezimenduekin hitzarmena sina dezake. Adibidez, Gasteizko Komun Lagunkoiak kanpainarekin egin duten bezala.






**Gomendatutako dokumentazioa**




**Publicly Accessible Toilets**
An inclusive design guidance.
Gail Ramster and Jo-Anne Bichard.
https://rca-media2.rca.ac.uk/documents/Publicly-accessible-toilets-2.pdf




**Publicly Accessible Toilets after COVID-19**
A 2021 update to inclusive design guidance.
Imran Nazerali, Gail Ramster and Jo-Anne Bichard.
[https://rca-media2.rca.ac.uk/documents/PAT_COVID19.pdf](https://rca-media2.rca.ac.uk/documents/PAT_COVID19.pdf)

**Irudiak**



*Komun egokituak diseinatzerakoan irisgarritasun araudiak ezartzen dituen dimentsio eta irizpideak betetzeaz gain, hauek osatzea proposatzen da, adibidez honakoak kontuan hartuta:*
- *Desgaitasun mota ezberdinak, organikoa barne.*
- *Irisgarritasun lagundua.*
- *Helduen edo/eta haurren zainketa-lanak.*




*Irisgarritasun autonomoa vs Irisgarritasun lagundua*






*Komun autogarbigarri irisgarria.*

- *Elementuen arteko kontraste ezak hauen erabilera zailtzen du, besteak beste.*
- *Irisgarria dela adierazten duen arren, transferentzia barrak falta dira eta komunontziaren neurriak ez dira egokiak.*
- *Konketak ez ditu araudiak ezartzen dituen irizpideak betetzen.*



*Festetan eta ekitaldietan jarri ohi diren komunek ez dute irisgarritasun baldintzarik betetzen.*






*Irisgarritasuna ere kontuan hartzen duten moduluak gero eta ohikoagoak dira merkatuan.*

## Garraioa

| **Elementua** | **Aparkaleku egokituak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA 9 Irisgarritasuna. Oinarrizko Dokumentu honen helburua da erabilera-segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak ezartzea. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Dotazioa<br>_ Oro har, plaza irisgarri bat 40 aparkaleku edo frakzio bakoitzeko.<br>_ Erabilera komertzialean, konkurrentzia publikoan edo erabilera publikoko aparkalekuan, plaza irisgarri bat 33 aparkaleku edo frakzio bakoitzeko.<br>_ Bi aparkaleku egokituen arteko distantzia maximoa: 250m (oinezkoen ibilbide baten gainean neurtuta).<br>— Kokapena eta lehentasuna: Oinezkoen ibilbideetatik eta ekipamendu/zerbitzu publikoetarako sarbideetatik hurbil kokatuko dira.<br>— Kokapen eremua: Gurutzaguneetatik hurbil eta gainazal horizontal edo malda txikiko eremuetan kokatzea lehenetsiko da.<br>— Seinaleztapena: Aparkaleku bakoitza nazioarteko irisgarritasun sinboloarekin seinaleztatuko da, bertikalean eta horizontalean, gainerako ibilgailuentzako debeku-seinalearekin batera.<br>— Azalera eta transferentzia eremua: Aparkaleku irisgarriak araututako dimentsioetaz gain transferentzia-eremua eta oinezkoen ibilbidera hurbiltzeko espazioa izango ditu.<br>**Dimentsioen inguruko desberdintasunak araudietan**<br>— EAEko araudiak aparkaleku-plazaren neurri minimoak ezarri zituen:<br>_ Orokorrean: 600x360cm.<br>_ Zeiharrean (baterian) badago: luzera 500cm-tara murriztu daiteke.<br>_ Ilaran badago: Zabalera aparkaleku-zerrendak duenera murriztu daiteke.<br>_ Aparkalekua zebrabidetik hurbil badago, handik aparkalekura 2 m-ko distantzia utzi oztoporik eta aparkalekurik gabe.<br>— Estatuko araudiak aparkaleku-plazaren ondoko transferentzia-eremuetan jarri zuen arreta:<br>_ Zeiharrean (baterian): Plazaren luzera x 150cm (alboko ateetatik sartu eta irtetea ahalbidetuko luke).<br>_ Ilaran: Plazaren zabalera x 300cm (atzeko atea zabaldu eta arrapala ateratam, bertatik sartu eta irtetea ahalbidetuko luke).<br>_ Interesgarria da transferentzia-eremua bi plazen artean partekatzeko aukera adierazten duela araudiak berak.<br>_ Zebrabideen ondoan kokatzen ez bada, transferentzia-eremuan bertan egokitu behar da ibia.<br>_ Espaloian, aparkalekuaren parean espazioak garbi egon behar du zintarritik hasi eta 150cm-tako sakoneran.<br>— Orokorrean, estatu-mailako araudia hartzea gomendatzen da. |

| | |
|---|---|
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Ibia transferentzia-eremuan ezartzea: Praktika hau gauzatzea gomendatzen da, oinezko ibilbidea ez inbaditzeko eta zirkulazio seguru eta jarraia bermatzeko.<br>— Hurbileko kokapena lehenestea: Plazak ekipamendu eta sarbide nagusietatik ahalik eta hurbilen kokatzea, oinezkoentzako ibilbide irisgarriekin konektatuta.<br>— Gainazal horizontalak bermatzea: Plazak gehiegizko malda duten eremuetan jartzea saihestea, ahal den heinean.<br>— Ingurunearei erreparatzea: Ateak irekitzea eta maniobrak mugatzen dituzten elementuak saihestea. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  **Aparcamientos y discapacidad.** Diagnóstico y propuestas. Cocemfe y Gea21. https://www.gea21.com/publicacion-aparcamiento-y-discapacidad/ |
| **Irudiak** |  *Plaza erreserbatzeaz gain bertara sarbide irisgarria bermatuko da. Gainera, sartu-irtenak errazteko, aparkalekuaren parean dagoen espaloiaren luzeran, ez da hiri-altzaririk jarriko 1,50m-ko sakoneran.* |




*Bi aparkalekuren arteko transferentzia eremua eta espaloiko azalera libreak.*




*Seinale bertikal egokia. Erreserbatutako aparkaleku-plaza adierazteaz gain, gainontzeko ibilgailuei aparkatzeko debekua adierazten die. Luiaondo, Aiara.*





*Goiko bi irudietan: Bi aparkaleku egokitu baterian: transferentzia-eremua partekatua da, eta ibia bertan eraiki da, asfaltozko arrapala baten bitartez. Zarautz.*





*Goiko bi irudietan: Aparkaleku egokitua ilaran: transferentzia-eremua zebra-bide aldera jarri da, ibia bertan eraiki delarik, asfaltozko arrapala baten bitartez. Zarautz.*

| **Elementua** | **Markesinak eta geralekuak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Hiri-ekipamenduak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Lotura: Oinezkoentzako pasabideetatik eta ibilbide irisgarritik hurbil kokatuko dira.<br>— Alboko espazioa eta nasako gutxieneko zabalerak: Itxarongune eta nasaren gutxieneko zabalera 1,80 m izango da.<br>— Ikusmen- eta ukimen-seinaleztapen eta informazioa: Ondoko zoladura-eremuekiko kontraste kromatiko handiko 120 cm-ko zabalerako detekzio-zerrenda bat jarriko da, martxa-lerroaren zeharkako noranzkoan igaroko da, espaloiaren zabalera osoan zehar, fatxadatik, lorategi-eremutik edo oinezkoen ibilbidearen kanpoalderago dagoen zatitik zintarriraino.<br>— Zerrenda horia: Zintarriaren ondoan, gutxienez 40 cm-ko zabalera izango duen ukipen-zerrenda horia jarriko da, segurtasun-eremua eta mugak modu argian adierazteko.<br>— Altzari irisgarriak: Gutxienez, euskarri iskiatiko bat eta beso-euskarria duen eserleku bat jarriko da, 45 ± 2 cm-ko garaierarekin.<br>— Ikusmen- eta ukimen-informazioa: Informazioa 0,90-1,50 m-ko altueran jarriko da, braillez eta erliebean. Lineen identifikazioari, izenari eta ibilbide-eskemari buruzko informazioa Braille sistemara transkribatuko da.<br>— Gainazal beiraztatu edo garden guztiek haien detekzioa bermatuko duten elementuak izango dituzte. Bi banda horizontal opakurekin seinaleztatuko dira, kolore bizikoak, beiraren atzekaldearekin kontrastatuak eta beiraztatutako gainazalaren zabalera osoa hartzen dutenak. Zerrendak 5 eta 10 cm arteko zabalera izango dute, eta lehenengoa 0,85 eta 1,10 m arteko altueran jartzeko moduan jarriko dira, eta bigarrena 1,50 eta 1,70 m bitartean. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Itxarongune eroso eta segurua: Markesinan eserleku kopuru nahikoa aurreikustea gomendatzen da.<br>— Altzari ergonomikoak: beso-euskarriak eta euskarri iskiatikoak dituzten eserlekuak instalatzea gomendatzen da.<br>— Pasabide eta zabalera egokiak: Itxaronguneak zabalera nahikoa izango du, ibilbide irisgarriaren jarraitutasuna oztopatu gabe.<br>— Seinaleztapen egokia: Kolore-kontraste handiak, tipografia irakurgarriak eta dimentsio egokiak.<br>— Informazioa hainbat formatutan sartzea gomendatzen da: testua, irudia, ukipena eta braillea.<br>— Hirigunetik kanpoko geralekuak: Geltoki horiek behar bezala seinaleztatzea eta argiztatzea gomendatzen da, segurtasuna eta orientazioa bermatzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** |  | **Guía técnica para la instalación de sistemas de encaminamiento en las infraestructuras de transporte en la Comunidad de Madrid.** Comisión Técnica de Accesibilidad de Modos de Transporte (2017). https://www.atuc.es/sites/default/files/guia-encaminamientos-comunidad-de-madrid.pdf |
| |  | **Accesibilidad, seguridad y diseño para todos en el transporte.** J.F. Dols, I. Vázquez (2016). https://www.atuc.es/sites/default/files/guia-encaminamientos-comunidad-de-madrid.pdf |
| |  | **Infraestructuras Inclusivas. Guía para el diseño de infraestructuras de transporte terrestre con perspectiva de género.** Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana. (2025). https://cdn.transportes.gob.es/portal-web-transportes/ministerio/proyectos_singulares/perspectiva-genero-infraestructuras-transporte/mitms_guia-perspectiva-de-genero-infraestructuras-de-transporte.pdf |

**Irudiak**



*Donostian jarri den markesina eredua.*
*Manpara gardenak ditu, kolore biziko bi banda seinalatzaile dituztenak. Braille hizkuntzan autobus zerbitzuari buruzko informazioa ematen dute, eta eserleku bat dute euskarri iskiatikoarekin eta beste bat konbentzionala.*



*Tolosako Urkizu auzoko autobus geralekuko eserlekuak: iskiatikoa eta arrunta.*
*Eserlekuak zurezkoak izateak erosotasuna areagotzen du.*




*Autobus geraleku egokitu baten oinarrizko elementuak. Zintarriaren ondoko seinaleztapen-zoladura botoidunaren kolore horia ez da ausazkoa: araudiak hala izatea dauka ezarria.*

## Eraikinak

| **Elementua** | **Erabilera publikoko eraikinetako sarbidea.** |
|---|---|
| **Eremua**<br><br>**Azpieremua** | Hiri-ingurunea.<br><br>Eraikin eta zerbitzu publikoak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA 9 Irisgarritasuna. Oinarrizko Dokumentu honen helburua da erabilera-segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak ezartzea. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Maila berean: Eraikinerako sarbidea kanpoko zoladuraren maila berean ezartzea, oztoporik edo koskarik gabe.<br>— Kanpo-ate identifikagarria: Erraz aurkitu daitekeena eta kromatikoki kontrastatua.<br>— Informazio-kartela: Ate automatikoaren ondoan, 1,50–1,60 m-ko altueran, eraikinaren erabilerari buruzko informazioa emateko.<br>— Komunikazio eta dei-sistemak: Atearen ezkerraldean, 0,90–1,20 m-ko altueran kokatuta, erabilgarritasuna bermatuz.<br>— Maniobra-espazioa: 1,80 m-ko diametro librea gutxienez, kanpoko atearen bi aldeetan.<br>— Atearen irekiera: 90° gutxienez.<br>— Atearen zabalera: ≥ 0,90 m; automatikoki irekitzen bada 1,20 m.<br>— Larrialdietarako atea: 0,90 m eta 0,20 m altuerara jarritako bi barra, beheko laua, presio hutsez irekitzen dena.<br>— Beiraz hornitutako atea: Segurtasuneko beira; 40cm-ko zokalo babeslea; 20cm-ko bi seinaletapen banda, 0,90m eta 1,50m altueretan.<br>— Sarrera-irteera kontrol sistema: Ordezko pasabide irisgarria gutxienez 0,90 m-ko zabalerakoa; elementu eragileak 0,90-1,20 m-ra.<br>— Atearen heldulekua: Ergonomikoa, ahal dela horizontala, 0,90-1,20 m-ko altueran; bertikala bada, beheko aldean 0,40 m libre utziko ditu.<br>— Zoladura eta hormak kontrastatzea: Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonek sarbidea errazago antzeman dezaten kromatikoki kontrastatuta. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Eraikin publikoak kanpoaldearekin duen harremana indartzea, sarbidea duten solairuak publikoagoak eginez. Horretarako, atariaren kanpoaldea zein barrualdea ekipatzea proposatzen da, erabilera ezberdinak sustatuz: eguralditik babestea, itxarotea, taldean zein bakarka egotea, haur-orgatxoak zein gurpildun aulkiak aparkatzea… Onura guzti hauetaz gain, nabarmendu beharra dago kanpo-barne harremana indartzea segurtasun-pertzepzioa hobetzeko tresna ere badela.<br>— Neurrietan eskuzabalagoak izatea, batez ere desgaitasunaren edo eta zainketen behar gehien dauden une eta guneetan. Esaterako, hezkuntza-zentruen sarbideetan. Izan ere, urteak dituen egunen erdian, ikastetxeen atarietan zaintza-lanen inguruan ehundaka herritar anitz elkartzen da, eta zaintza-lanak partekatzeaz gain bertan eraikitzen eta sendotzen dituzte sareak. Proposatzen da ikastetxeetako ingurune hurbila, bai eta eskolako kanpo-espazioak ere, zaintzarako ingurune bezala egokitzea: trafikoarengandik babestuz, topagune erakargarri eta erosoak sortuz, eguraldiarekiko babesa egokituz, eserlekuak eskainiz… |

| | |
|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** | — Ikus “Erabilera publiko eraikinen barne irisgarritasuna” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |
| **Irudiak** | <br><br>*Eraikinak hobetzeko estrategia gisa proposatu da esparruka edo gaien arabera udalerriko eraikin guztiak “orraztea”. Estrategia berbera aplika daiteke elementu zehatzei: esaterako, eraikin publikoetako sarbideetan edo eta pasabide nagusietan dauden beira gardeneko azalera bertikalak ikusgai egiteko seinaleztapena ezartzea.* |




*Andoaingo Arrate Pilotalekuko sarbideko seinaleztapenean irisgarritasun sentsoriala bermatzeko elementuak txertatu dira.*

| **Elementua** | **Erabilera publikoko eraikinetako barne-irisgarritasuna.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Eraikin eta zerbitzu publikoak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA 9 Irisgarritasuna. Oinarrizko Dokumentu honen helburua da erabilera-segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak ezartzea. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Oztoporik gabeko ibilbide nagusiak: Gutxienez 1,80 m-ko zabalera eta 2,20 m-ko altuera librearekin, zoladura gogorra eta jarraia bermatuz, oztoporik gabe.<br>— Zoladura seguru eta irristagaitza: Zoladura gogorra eta jarraiak, lehorrean zein hezean erabilgarri. Zoladurak, ateak eta hormak kromatikoki kontrastatuta egongo dira.<br>— Etengailuen eta entxufeen kokapena: Erraz aurkitu daitezkeen etengailuak argi pilotuarekin 0,80–1,20 m-ko altueran; entxufeak 0,40–1,20 m-ko altueran.<br>— Korridoreen gutxieneko zabalerak:<br>_ Korridore nagusiak: 1,80m.<br>_ Bigarren mailako korridoreak: 1,20m, hasieran eta amaieran 1,50×1,50 m-ko biraketa-espazioarekin.<br>— Korridoreko altzariak albo batean, pasabidea libre utziz.<br>— Leiho eta heldulekuen altuera egokia: 0,80–1,10 m-ko altueran; irekidurak 2,20 m azpitik ez oztopatzea.<br>— Seinaleztapen-espazioak behe solairuan: Bide publikoa arreta-gune irisgarriarekin lotzen duten ibilbideak seinaleztapen-banda bidez markatzea.<br>— Seinaleztapen-espazioak gainerako solairuetan: Sarbideak elementu irisgarrietan (aparkaleku egokitua, komun egokitua...) lotzen dituzten ibilbideak seinaleztapen-banda bidez markatzea. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Orokorrean:<br>_ Edozein espazio proiektatzerakoan, kontuan izan ingurune baten diseinuak pertsona bat gai edo desgaitu bihur dezakeela.<br>_ Baita ere, kontuan izan mundu guztia ez dela autonomoa: antolaketan zein dimentsioetan, “autonomia lagunduaren” edo “bi gorputzen” irizpidea aplikatu.<br>_ Dimentsioei dagokionez: ez ainguratu araudiak ezartzen dituen minimoetara. Horregatik erantsi dira gomendatutako dokumentazioan Estatu Batuetako ADA estandarrak: gure araudiak neurri batzu ezartzen baditu ere, irizpideak edo testuingurua aldatuz gero zenbaki horiek beste batzu izan daitezkela adierazteko.<br>— Antolaketa logikoa eta sinplea: Eraikinaren barne-erabilera nagusiak (hala nola bulego nagusiak, komun irisgarriak, arretaguneak) solairu irisgarrietan eta ibilbide nagusietatik gertuen kokatu, modu intuitiboan, orientazioa errazteko.<br>— Ibilbide nagusiak zabalak, oztoporik gabeak eta kolore edo testura-kontrastez identifikagarriak izan behar dira.<br>— Ateak: irekitze-sistema erraza eta indar txikikoa izan behar dute; ate automatikoak gomendagarriak dira erabilera intentsiboko guneetan.<br>— Seinaleztapen koherentea: Barne-ibilbideetan seinaleztatze argia eta uniformea |

<table>
<tr><td></td><td>erabili, kontraste kromatiko altua, tipografia irakurgarria eta Braille sistema edo erliebea duten errotulazioak uztartuz.<br>— Ate eta pasabide zabalak: Pasabide eta ate guztiek gutxieneko zabalera librea bermatu beharko dute, minimoak gainditzea gomendatzen delarik.<br>— Zoru ez irristakorrak: Barne-zoru guztiak material gogor, iraunkor eta ez irristakorrezkoak izan behar dira, batez ere hezetasuna egon daitekeen guneetan.<br>— Kontraste kromatikoa: Zoru, orma eta altzarien artean kontraste kromatikoa ziurtatu, bereziki maila-aldaketak (arrapalak edo eskailerak) eta pasabide-ertzak nabarmentzeko. Era berean, material eta koloreen bitartez erabilera eta ibilbide nagusienak identifikatzen lagundu.<br>— Argiztapen uniformea: Argiztapen orokorra maila egokikoa eta uniformea izan behar da, itzal handirik edo itsualdirik sortu gabe. Arreta berezia jarri informazio-puntuetan eta eskailera-buruetako argiztapen indartuan.<br>— Komun irisgarriak bermatu. Orokorrean sarbideetatik edo eta komunikazio bertikaleko elementuetatik gertu. Eraikineko komunen bat kanpotik ere erabiltzeko moduan kokatzea eta antolatzea gomendatzen da, baita eraikina itxita dagoen ordutegian ere.<br>— Akustika eta hotsak: Soinu-giro erosoa eta oihartzunik gabea sustatu, arreta-guneetan eta bilera geletan entzumen-urritasuna duten pertsonen komunikazioa errazteko.<br>— Mantentze-lana: pasabide eta ateak libre mantendu, elementu mugikorrak (altzariak, seinaleak) ez daitezen oztopo bihurtu.</td></tr>
<tr><td>**Gomendatutako dokumentazioa**</td><td><br>**Manual técnico de accesibilidad en edificios.** ONCE, CERMI et al. (2019). http://riberdis.cedid.es/bitstream/handle/11181/3278/Manual_para_un_entorno_accesible_2011.pdf</td></tr>
<tr><td></td><td><br>**Guía de buenas prácticas de accesibilidad universal del Ayuntamiento de Albacete.** Accesia, COCEMFE (2024). https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2024/07/Guia-de-Buenas-Practicas-de-Accesibilidad-Universal-del-Ayuntamiento-de-Albacete-v1.pdf</td></tr>
</table>

| | | |
|---|---|---|
| |  | **Manual de accesibilidad universal para el sector de la construcción.**<br>Consejería de Sanidad y Servicios Sociales de la Junta de Extremadura, Dirección General de Accesibilidad y Centros. (2022).<br>https://sid-inico.usal.es/wp-content/uploads/2022/10/accesibilidad-construccion.pdf |
| |  | **2010 ADA Standards for Accessible Design**<br>División de Derechos Civiles del Departamento de Justicia de EE. UU. (2010). (Servicio activo).<br>https://www.ada.gov/law-and-regs/design-standards/2010-stds/#401-general |
| |  | **Guía de recomendaciones en accesibilidad cognitiva.**<br>OACEX, Plena inclusión Extremadura (2017).<br>https://www.plenainclusionextremadura.org/plenainclusion/sites/default/files/publicaciones/Guia%20orientaciones%20AC%20Edificios.pdf |
| |  | **Accesibilidad cognitiva en el uso público de los edificios.**<br>Plena Inclusión, CERMI, CEAPAT (2021).<br>https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/10/Accesibilidad-cognitiva-en-el-uso-publico-de-los-edificios.pdf |




**Guía de accesibilidad cognitiva. Sistemas de emergencia y evacuación.**
AFANIAS (2022).
http://riberdis.cedid.es/xmlui/bitstream/handle/11181/6988/Gu%C3%ADa_accesibilidad_cognitiva_emergencia_y_evacuaci%C3%B3n.pdf




**Guía sobre accesibilidad y seguridad para casos de emergencias en edificios sociales y sanitarios.**
Ana Isabel Carpio Ponce (2016).
https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2021/03/Guia-sobre-accesibilidad-y-seguridad-para-casos-de-emergencias-en-edificios-sociales-y-sanitarios.pdf




**Hagamos accesible nuestro negocio.**
Ayuntamiento de Barcelona. (2016).
https://bcnroc.ajuntament.barcelona.cat/jspui/bitstream/11703/131734/1/AAFF_CAST_GuiaComer%c3%a7osAccessibles_Digital.pdf

| **Elementua** | **Erabilera publikoko eraikinetako komunikazio bertikala.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Eraikin eta zerbitzu publikoak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA 9 Irisgarritasuna. Oinarrizko Dokumentu honen helburua da erabilera-segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak ezartzea. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | **Eskailerak:**<br>— Neurri egokiak bermatzea: Gutxienez 1,20 m-ko zabalera; altuera librea ≥ 2,20 m; eskailera azpia 2,20 m-ko altuera librea izan arte itxita egongo da.<br>— Mailagainen altuera eta proportzioak: Tabikaren gehienezko altuera 17 cm; mailagainen eta tabiken erlazioa 62 < 2K + M < 64 (T eta H cm-tan).<br>— Tarte bakoitzak, gutxienez 3 maila izango ditu.<br>— Euskarri- eta babes-elementuak instalatzea: Eskubanda bikoitz jarraiak bi aldeetan, zabalerak 1,20 m gainditzen badu eta erdibideko beste bat, zabalerak 2,40 m gainditzen badu.<br><br>**Arrapalak:**<br>— Neurri egokiak bermatzea: Ibilbideek gutxienez 2,00 m-ko zabalera eta gutxienez 1,80 m-ko pasabide librea izan beharko dute, eta ≥ 2,20 m-ko altuera librea ere, erabilera eroso eta segurua ahalbidetzeko. Arrapala-buruak 1,80 m-ko diametro librea baimenduko du.<br>— Onartutako maldak: Luzetarako maldak ez du %8 gaindituko eta zeharkakoak %1,5. Malda handiagoak onartzeko baldintzak honako hauek dira:<br>_ %10: tartearen luzera l≤ 3,00m.<br>_ %8: tartearen luzera l≤ 6,00m.<br>_ %6: tartearen luzera l≤ 9,00m.<br>— Arrapala 2,00m baino luzeagoa bada, eskubandak jarriko dira bi aldeetan.<br><br>**Eskubandak:**<br>— Ezarpena: Beheko eskubandaren altuera 70±5 cm; goiko eskubandaren altuera 100±5 cm.<br>— Diseinu ergonomikoa: 4-5cm-ko diametroa, hormarekiko gutxienez 4 cm bananduta. Eskubanden muturrak 45cm luzatuko dira, ibilbide irisgarria inbaditzen ez badute, eta errematatu egingo dira, lotuneak sahiesteko.<br><br>**Igogailuak:**<br>— Sarbide-plataforma: Gutxienez 1,80m diametroko ontziratze plataforma egongo da.<br>— Sarbideko seinaleztapena: 1,50 x 1,50m-ko kontrastatutako arteka-zoladura seinaleztazailea sarbidearen norabidearekiko elkartzuta.<br>— Kabinaren neurriak:<br>_ Sarrera/irteerako norabide bakarra: 1,10 × 1,40m.<br>_ Sarrera/irteerako norabide desberdina: 1,50 × 1,80m.<br>— Desplazamendu horizontaleko ate automatikoak, pasatzeko zabalera librea dutenak: 1,00 m. |

| | |
|---|---|
| | — Kabinako zoladuraren eta kanpoaldearen arteko berdinketa: = 0,00 cm.<br>— Kabinaren eta forjatuaren arteko tarte edo zirrikitua: 3,50 cm.<br>— Zoladura gogorra, ez irristagarria (lehorrean eta bustian), laua eta egonkorra.<br>— Harrapatzearen aurkako sentsorea atearen altuera osoa hartuko duena, atalasea pertsona batek okupatzen duen bitartean automatikoki itxi ez dadin.<br>— Sakagailuak:<br>_ Kanpo sakagailuak: 0,90-1,20 m-ko altueran, kontrastatuak, ondo argiztatuak, solairu bakoitzean alde berean eta beste paramentu batetik 40 cm-tara.<br>_ Kabinako sakagailuak: Botoiek gutxienez Ø = 2 cm izango dute, gainerako elementuekin kontrastatuta, atzeko argiztapenarekin (sakatua dagoela adierazteko), braillezko seinaleekin eta goi-erliebeko ikurrekin.<br>— Sekzio ergonomikoa duten eskubandak, h = 0,90 ± 0,05 m kokatuak, eta ormatik 4cm bereizita.<br>— Sarrerako atearen aurrean dagoen paramentu guztia hartzen duen segurtasun-ispilua. |
| **Irizpideak eta gomendioak** | — Orokorrean:<br>_ Edozein espazio proiektatzerakoan, kontuan izan ingurune baten diseinuak pertsona bat gai edo desgaitu bihur dezakeela.<br>_ Baita ere, kontuan izan mundu guztia ez dela autonomoa: antolaketan zein dimentsioetan, “autonomia lagunduaren” edo “bi gorputzen” irizpidea aplikatu.<br>_ Dimentsioei dagokionez: ez ainguratu araudiak ezartzen dituen minimoetara. Horregatik erantsi dira gomendatutako dokumentazioan Estatu Batuetako ADA estandarrak: gure araudiak neurri batzu ezartzen baditu ere, irizpideak edo testuingurua aldatuz gero zenbaki horiek beste batzu izan daitezkela adierazteko.<br>_ Irisgarritasun zaileko hiri-inguruneetako eraikin publikoetako proiektu berrietan zein irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeetan: eraikineko solairuak elkartzeaz gain, igogailu hori kanpoko bi espazio publikoren arteko kotak elkartzeko balia daiteke.<br>— Komunikazio bertikaleko elementu edo gunearen kokapena zentrala: Igogailua eta eskailera sarrera nagusitik hurbil kokatu, aurkitzeko eta iristeko erraza izan dadin.<br>— Kanpoaldearekin harreman bisuala eta argiztapen naturala: Ahal den guztietan, eskailerak eta igogailuek behar dituzten espazioak kanpoaldearekin harremanean jartzea, argiztapen naturala sartuz bide batez.<br>— Komunikazio-guneak: Igogailuen eta eskaileren aurrean edo artean atseden-guneak eta espazio irekiak diseinatu, pertsonen arteko topaketak eta harreman soziala errazteko.<br>— Eskailera eta arrapaletako ukimenezko elementuak: Eskailera-mailen hasieran eta amaieran zoru-bandak jarri, pertsona itsuek maila-aldaketa hauteman dezaten.<br>— Eskailera-mailen ertzak ukimenaren zein bistaren bitartez hautemateko diseinu-baliabideak erabili (material eta kolore kontrasteak) edo elementu espezifikoak jarri.<br>— Arrapalak: ahal den guztietan %6-ko malda ez gainditu. Igo eta jeisteko errazagoa eta seguruagoa izateaz gain, kasu horietan araudiak eskatzen dituen hainbat elementu jartzea ez da derrigorrezkoa izango, hautua baizik. izateaz gain, araudiak eskatzen dituen hainbat elementu<br>— Eskubanda bikoitzak: Eskaileretan eta arrapaletan altuera bikoitzeko barandak (haurrei eta helduei egokituak) jarri, bi alboetan, ergonomikoak eta amaieran luzapen horizontalarekin.<br>— Igogailuen kokapenean irisgarritasuna bermatu: kabinak araudiaren arabera eraikitzen badira ere, ez da arraroa adibidez kanpoko botoiari sakatu ezinik geratzea gurpildun aulki baten erabiltzailea, txokoan jarri delako.<br>— Igogailuetako kontrol-panel irisgarriak: Kontrolak altuera eta posizio irisgarrian kokatu, Braille eta erliebe bidezko idazkerarekin, eta adierazle bisual eta akustiko |

| | |
|---|---|
| | argiekin.<br>— Larrialdietarako protokoloa: Igogailu guztietan larrialdi-deiak bi noranzkokoak eta ikusizkoak izan daitezela, entzumen-urritasuna duten pertsonen segurtasuna bermatzeko. |
| **Gomendatutako dokumentazioa** | Ikus “Erabilera publiko eraikinen barne irisgarritasuna” ataleko gomendatutako dokumentazioa. |
| **Irudiak** | <br>*Fatxadan kokatuak, kanpoaldearekin harremanean eta argiztapen naturalarekin: Gurutzetako ospitaleko eskailerak, eraikinari nortasuna ematen dioten elementuak izateaz gain, erabiltzaileen orientazioa errazteko baliabidea ere badira.*<br> <br>*Abusuko Kultur Etxeko komunikazio-bertikaleko gunea (eskailera eta igogailua) eraikina itxita dagoenean ere erabiltzen dute auzotarrek, beheko sarreraren (ezkerretara) eta goikoaren (eskubitara) arteko 14m-tako kota-jauzia egiteko.* |

| **Elementua** | **Erabilera publikoko eraikinetako arreta-guneak.** |
|---|---|
| **Eremua** | Hiri-ingurunea. |
| **Azpieremua** | Eraikin eta zerbitzu publikoak. |
| **Badago elementu hauei aplika daitekeen araudirik IU arloan?** | — 68/2000 Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonen espazio publikoetan, eraikinetan eta zerbitzuetan irisgarritasuna bermatzeko arauak ezartzen dituena.<br>— TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuetara sarbide eta erabilerarako irisgarritasun eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak jasotzen dituen dokumentu teknikoa.<br>— CTE DB-SUA 9 Irisgarritasuna. Oinarrizko Dokumentu honen helburua da erabilera-segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak ezartzea. |
| **Zer baldintza ezartzen ditu araudiak?** Erabakigarrienak nabarmendu dira. Kontsultatu indarrean dagoen araudia xehetasun guztiak jakiteko. | — Arreta-guneko irisgarritasuna: Espazioak gurpil-aulkian gutxienez pertsona bat egoteko eta biratzeko moduko banaketa izango du, araudian jasotako parametroen arabera.<br>— Interkomunikazio-gailurik badago, indukzio-begizta edo horretarako egokitutako beste sistema bat du.<br>— Mostradoreak: Espazio libreetan jartzen diren mostradoreek eta jendeari arreta emateko leihatilek 1,20 m-ko zabalera eta 0,80 m-ko altuera izango dute, eta espazio librea, berriz, 70x80x50cm-koa (altuera x zabalera x sakonera).<br>— Itxarote-eremuak: Eserleku finkoak dituzten itxarote-eremuek gurpil-aulkia erabiltzeko plaza bat izango dute 100 eserleku edo frakzio bakoitzeko. |
